

**Arratia Kantuz-en lehenengo kantu bira Areatzan izango da hilaren 16an**

16. orrialdea

**Stan Godrie eta Aida Nuño Igorreko Ziklo-krosean irabazle**

Gizonezkoen Elite mailako lasterketea Stan Godrie eta Ismael Estebanen arteko sprintagaz amaitu zan. Godrie-k Igorreko txapela eroan eban eta Estebanek Euskadi-Basque Country Challenge-koa. Izan be, Igorrekoa Challenge-ko azken proba iza zan. Aida Nuñok txapel biak lortu ebazan. **15. orrialdea**



**Dimako II. Esku Pelota Txapelketako finalerdiak hilak 23 eta 30ean**

15. orrialdea

TOKIKOM

**begitu**  
arratia ubide zeberio

**264**

2016ko abenduaren 15a  
hamabostekaria  
www.begitu.org

## Gabonak Arratian

Turroi marka baten arabera, etxera itzultzeko sasoia da Gabonetakoa. Kaleak eta plazak jentez beteko dira. Horregaitik, Arratia Ubide eta Zeberiko udalak eta alkarteak ehun ekintzatik gora prestatu dabez urteko azken hamabostaldirako. Edade guztietakoentzat aproposak, kalean zein aterpean disfrutatuko.

**E**kintza batzuk, urtero-urterokoak dira eta sasoi honetan derrigorrezko bihurtu dira: Olentzoren etorrerea, Gabonetako Umeen Parkeak, San Silbestre lasterketak, Areatzako Bandaren kontzertuak... Baina nobedadeak be badagoz. Holan, aurtan gospel kontzertua egongo da Igorreko Lasarte Aretan, abenduaren 16an, The Upper Room, talde donostiarraren eskutik.

Herriko kale eta plazetan, kultur etxeetan zein

inguruko mendietan antzerkiak, zineak, berbaldiak, aurkezpenak, zozketak, azokak, kirol txapelketak, mendi urtekerak eta turroiak, txokolateak eta gaztainak sasoi giroa ipiniko dabe.

Ekintza batzuk ondo pasetako besterik ez dira izango, beste batzuek solidaritatea, edo gizartean dagoan arazo baten gainean konzientziaztea daukie helburu. Egunean-egunean gauza desbardinak egiteko aukerea dago. **5. eta 6. orrialdeak**



### AREATZA

**Udal antolaketea hobetuteko diagnostikoa martxan da**

Udal zerbitzuak, kanpora emoten diran zerbitzuak eta eraikinen kudeaketea hobetuteko, Areatzako Udalak enpresa bat kontratau dau egoerearen diagnostikoa egiteko eta hortik abiatuta, antolaketea hobetuteko proposamena egin dagian.

Peatonalizazioa, herriaren neurriko turismo plana eta euskerea bultzatzeko preminea ikusi dabe, besteak beste, aurrekontuetarako batzarretan eta 2017an horreei ekingo deuse. Parte hartzeari jagoonean be aldaketak egongo dira 2017an. Izan be, herritarren parte hartzea aurrekontuetatik harago, beste proiektuetara be zabaldu behar dala uste dau Asier Garcia Areatzako alkateak. **7. orrialdea**

### ARRATIA

**Jostailu barriak batzeako kanpaina**

Arratiako Gurutze Gorriak jostailu ez sexista eta ez beliko barriak batzeako kanpaina ipini dau martxan. Jostailuok premia daukien Arratiako umeen artean bananduko dira. Bertan jasotakoa, bertan bananduko da, beraz. Laguntza hau 50 erabiltzaile inguruk jasoko dabe. Arratiako Gurutze Gorriak hurreko lana errekonoziduten dauan proiektu zinoari saria jaso dau. Izan be, gizarte esku hartze arloan hiru urte baino ez ditu eta erabiltzaile askoren konfiantza lortu dau. **7. orrialdea**

### ARRATIA

**1960ko Arratia suediarren begietatik**

Argibel Euba ikerlari galdakaoztarrak *Basker* izenburupeko liburu eta DVDa argitaratu dauz. Daniel Grenholm eta Lennart Olson erreportari suediarrek aurretik Arratian egon eta euskal kultura eta folkloreak gaineko laburmetraje bi filmak ebezan 1963an: *Basker* eta *Bonde i Baskerland*. Dokumental horreetan, Maurizia, Benantzio eta Leon agertzen dira, baita Artea eta Zeanuriko baseritar ezagun batzuk be. Angel Larreak zehaztasun guztiak emon dauz bere erreportajeen. **10. eta 12. orrialdeak**



  
**Pedro Álvarez Blanco**  
NOTARIOA

Tel.: 94 673 92 26  
Anibarro parkea 3, Behea Faxa: 94 673 94 06  
48143 Areatza areatza-notaria@gmail.com

## ARRATIA ZURI-BALTZEAN

ARRATIA  
KONPAINIA

Gerra Zibilak eztanda egin ebanean, altxatuen aurka burrukatze-ko, Arratia mailan, beste batzuen artean, protagonismo handia izan eben abertzaleak eta horren adibide Arratia Konpainiaren sorrera dogu. Eusko Alderdi Jeltzalean afiliata egozan gazteak osotutako konpainia zan. Prestaketa eta instrukzioa egiteko, koartel funtzioa bete eban Arteako seminarioan bildu eben arratiar gazte taldea urri lehenengoaren amaieran. Egun batzuetako prestaketa egin ondoren, 1936ko urri bigarrenaren 4an Elgetako fronterra bialdu eben Arratia Konpainia, eta bertan euki eban gerra bateoa erreketen aurka burrukatuz eta garaile atereaz. Garaipen horrek ospea ekarri eutsen arratiarri eta

"txokeko batailo" izentau eben konpainia.

Zemendiaren amaieran Legutianora bialdu eben Arratia Konpainia —daborduko Ibaizabal batailoaren barruan—, Eusko Jaur-laritzako Estatu Nagusiak prestatutako erasoan parte hartzeako. Eraso honen helburu nagusia Gasteiz hartzea zan; helburua ez zan lortu, baina burruka gogorak gertatu ziran Legutiano aldean.

Gabonetan, etxera etorteko egun batzuetarako baimena emon eutseen arratiar gudariak eta hemen agertzen dan argazkia 1937ko Errege egunean, Igorren antolatu zan jaian egindakoa da: bertan mezea entzun eta Arratiako alkate eta agintariak batera bazkaria euki eben. Ospakizunak laster amaitu ziran eta gerrarako deiari barriro erantzun behar izan eutsien. Oingoan Ermura agindu ebezan eta hiru hilabete

emon ebezan bertan akoartelautu "txokeko batailo" moduan.

Ermunik Arratiara itzuli ziran. Konpainiako gudari batzuk astur-iar Zomoza bataioarentzat gidari lanak egin ebezan Gorbeian eta beste batzuk, Arratiako herriak zaintzeaz arduratu ziran. Ondoren, Euba aldetik ibili ziran eta gero Arteara bueltau eta Urrekoatxa aldean erreketen aurka burruka latzak euki ebezan. Nahiz eta etxean burrukatu, erreketek nagusitu egin jakiezan, eta Arteara erretirau beharrean aurkitu ziran.

Arteatik Begoñara joan ziran Artxandan burrukatze intenzioagaz, baina azkenean Txori Herrira eroan ebezan. Hemen nazionalen nagusitasuna argia zan eta bagilaren 19an Bilbo hartu eben. Gertakizun horrek Euskal Herri osoa Francoren ejerzituen menpe jaustea suposatu eban.

Hurrengo egunetan bai Eusko Jaur-laritzak eta baita euskal tropak be —Arratia Konpainia tartean— Santanderrerako bidea



Arratia Konpainia Igorreko beheko plazan. 1937ko urtailaren 6a. Argazkilaria ezezaguna.

hartu eben. Azkenik, 1937ko abuztuaren amaierako egunetan eta historikoki polemikoa izan dan Santoñako Ituna tartean izanik, euskal ejerzituak nazionalen eskuetan errendidu ziran. Santoñan hamar euskal batailoik eta Laredon beste zortzik eta lau

bateriak armak entregau ebezan. Laredon egozan batailoien artean Arratia Konpainiak osotzen eban Ibaizabal batailoia egoan.

Hemendik aurrera arratiar gudariak Francoren kartzeletan zehar ibili behar izan ziran.

Jon Urutxurtu

## TELEFONO INTERESGARRIAK

## Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00  
SOS DEIAK 112

## Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

## Abenduaren 12tik 18ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1  
Tel.: 94 673 93 95 eta 609 402 908

## 22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.

## Abenduaren 19tik 25era

Badiola. Artea. Herriko Plaza 7  
Tel.: 94 631 73 11

## 22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano.

## Abenduaren 26tik urtailaren 1era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33  
Tel.: 94 673 70 54

## 22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano.  
Zeberikoak ez dau guardiarik egiten.

## Urte osoan

## 22:00etatik 09:00etara

Lucía Luño. Kareaga Goikoa 16. Basauri.

## Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

## Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

## Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

## Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea 94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Euskotren 902 543 210

Areatzako Notarioratza

94 673 92 26

## Bizkaibus\* 902 222 265

Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

## Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara

30 minuturo, azkenengo 22:15ean

Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30

minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean

Galdakaoraino.

## Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era

30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

## Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

## Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

## Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik

21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago

zerbitzurik.

## Artea-Zeberio-Arrigorriaga

Arteatik urteerak lanegun eta zapatuetan

06:55ean eta 13:55ean.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik ez.

## Zeberio-Arrigorriaga

Lanegun eta zapatuetan 07:10, 08:10, 09:10,

11:10, 14:10, 15:10, 16:10, 18:10, 19:10, 20:10

Jai egunetan 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

## Arrigorriaga-Zeberio-Artea

Arrigorriagatik 12:40ean urtetan dan zerbitzua Artearaino heltzean da lanegun eta zapatuetan.

Jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

## Arrigorriaga-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan, 07:40, 08:40, 10:40,

12:40, 14:40, 15:40, 17:40, 18:40, 19:40, 20:40.

Jai egunetan, 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

## La Union\* 94 427 11 11

## Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan

dau eta Otxandiokoak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau

eta Otxandiokoak 18:30ean.

## Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta

16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta

Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urtetan

dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan

dau Gasteizetik. Otxandiokorik ez dago.

## Babesleak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundutakoa

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,  
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA  
Vicesecretaría de Política Lingüística

BATZ

Bizkaia  
foru aldundia  
diputación foral



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com)

Webgunea: [www.begitu.org](http://www.begitu.org)

Zuzendaria: Iñigo Iruarizaga.

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia.

Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.

Publizidadea: Iñigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Marta Rodríguez, Pablo Rodríguez eta Rut Rodríguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Ismael Martínez (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 7.000 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.



## ZEURE BERBEA

### Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskerronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideiak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleai zuen ikuspuntuak helarazoteko. Argitaratzeko derri gorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz.

Haxe dozu helbidea:  
Zertu Kultur Elkartea  
BEGITU aldizkaria  
Herriko Plaza 24  
48142 Artea

Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutunak:  
begitu@topagunea.com

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkartea. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidera.

## GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

### Gesu baten



Gero eta gitxiago entzuten dogu gure artean gesu baten esamoldea (gésu béten, agoskatuta). Beste era honeetara be jaso da Arratian: gesu baten, gesu beten, geisu baten, geuse baten, gausu beten... Denpora tarte txikia da, ato baten egin leitekeana. Esate baterako: "Gesu baten hirurak hormako erlojuan, eta bizkortuten ez bazara, autobusa galduko dozu!" edo "Azken albisteak entzunda, ez dakit gesu baten zer ikusiko dogun kalean!".

## ERETXIA

### PISA. Hain txarrak ete gara?

**A**ste bi inguru pasau dira lehenengo barria agertu zanetik, eta ordutik hona berba asko egin da PISA programak kaleratu dauzan azkenengo emoitzen inguruan. Han eta hemen entzun ahal izan dogu EAEko hezkuntza sistemeak nota oso bajua lortu dauala froga horretan, eta alarma guztiak martxan jarri dira gure emoitzak estatu espainoleko eta Europako batuz beste-koen azpitik dauzalako.

Erreakzinoak be danetarikoak izan dira; alde batetik Eusko Jaur-laritzak sorpresa erakutsi dau. Honek pentsau arazo egin deusta; sorpresa hori benetakoa bada kezkatuta egon beharko ginateteke, gure agintariak ez diralako ezertaz garaiz enteretan. Hezkuntzan lan egiten dogunontzat ez da hainbeste sorpresa izan, gure komunitadetan urte birik behin egiten diran diagnosi-ebaluazinoak be antzeko emoitzak emon izan da bezalako. Eta jakitun egon badira, sorpresea ez da benetakoa izan, beraz kasu honetan kezkatzekoa egia ez esatea izango litzateke.

Jaur-laritzak, argudioen artean hurrengoak aitatu dauz: froga lehenengoz ordenadorez egin dala eta frogan parte hartu daben ikas-tetxe kopurua murriztu egin dala, ikasleen aukeraketea be modu desbardinean egin dalarik. Faktore honeek eragina eukiko dabe, bai, jakin badakigu eta erabilitako ordenadoreen funtzionamentua zein eskasa dan adibidez, baina emoitzen ardurea faktore horreetan ixtea egoerea lar sinplifiketea dala esango neuke. Norbere buruaren kritikea egitea be ona dala ulertu beharko geunke danok.

Beste alde batetik, balantzaren beste muturrean, oposizinoko alderdiak, sindikatuak, guraso alkar-teak... erru nagusia Jaur-laritzak egindako murrizketena dala esaterakoan be errazoi faltan ez dauz, baina hau be barriro egoerea lar sinplifiketea dala ereisten deusat.

Horretaz aparte, kontuan izan



### HEKTOR RODRIGUEZ ARZA

Arratia Institutuko zuzendaria

behar da PISA azterketeak ezagutza-arlo konkretu batzuk baino ez dauzala neurtzen: matematika, zientziak eta irakurketa ulermena izan dira azken kasu honetan. Mundu mailako konparazinoak egiterakoan ez dogu aitzu behar arlo horreek baino ez dirala aztertu, eta Singapur edo Japonia baino askoz atzerago egoteak ez dau asko esaten, gizarte-ereduen arteko desbardintasuna be hain handia danean. Gure hezkuntza-sistemeak be alderdi asko eukiko dauz herrialde horreetan baino hobeto funtzionetan dabenak, baina horreen neurketa globalik ez da egiten. Horregaitik, konparazinoak egiterakoan zer konparetan dogun argi izan behar dogu, irakurketa orokorregiak egin ez dagiguzan.

Gainera, orain dala hiru urteko emoitzakaz konparauta, alde handia dago. Horrek zer esan gura dau, hiru urte honeetan gure hezkuntza-sistemearen kalidadea ona izatetik oso txarra izatera pasau dala? Nire esperientziak dinostanagaitik, lehen ez ginan hain onak, baina oingoan hain txarrak be ez gara.

Gauzak holan, PISAko emoitzak kontuan hartzekoak dirala uste dot, beste sintoma bat da gure hezkuntza-sistemeak aldaketa sakona behar dauala konfirmetako, eta aldaketa sakon horretarako eragile guztiok batera eragin beharko geunke. Gaur egungo gizartera egokitutako hezkuntza-sistemea behar dogu, ondino be sarritan orain dala 40-50 urteko eskemak errepetidu baino ez doguz egiten eta.

Baina lar dramatizau barik, emoitzak bere testuinguruan analizau behar dira analisi orokorregiak egin orde. Gure sistemeak harro egoteko moduko ezaugarri ugari be badaukaz, eta konbenziduta nago hezkuntzako profesionalak euren lana ahalik eta ondoen egiten saiatzen dirala egunero.

## LUMATUTEN



UNAI SANTOS

## Ospatu (eta gastatu)

**A**benduan bete-betean sartuta gagoz, Gabonetatik oso hur. Horregaitik, urtero lez, inoz baino solidarioagoak izateko egunak ei dira. Baina, modu berean, inoz baino konsumistagoak be bagara. Hori bai kontraesana! Ez da nik esaten dodalako, baizik eta "alkartasuna/konsumismoa" binomioa gizarteko txoko guztietan ageri dalako: telebistako iragarkietan, kaleko karteletan, interneten, etxe alboko dendan... Danak bultzatzen gaitu, edo bultzatu gura gaitu, erostera eta gastatzera. Eta gero eta arinago. Izan be, zemendian bertan (oraindino bainu-jantzia aspaldi kendu ez dogula) turroi eskeintza zabala topau geinke edozein supermerkadutan, Gabonetako argiak be, abenduak 1erako ipinten dira hango eta hemengo kaleetan eta abar. (Dana arintxu, ez?).

Bide beretik, oindino ez da denpora asko pasau *Black*

*Friday* famadua ospatu zanetik (deskontu eta merkealdi egunak *made in USA*). Amerikarrak egun hau Gabonetako erosketasasoiari zelanbaiteko hasikerea emoteko ospatzen dabe. Orain geuk be bai. Gainera, Bariku Baltza zemen-diaren 25ean izan zan, hain justu Bizkaiko Elikagai Bankuak janari bilketea egin eban egun berean. Aurten, antza danez, pasa dan urtean baino % 5 janari gitxiago batu zan Bizkaia mailan. Erakunde honetako presidentek esan eban moduan, *Black Friday* egunak "mesede gitxi" egin eutsan aurtengo janari bilketeari. Danerako diru eta denporarik ez, antza!

Esan barik doa, betidanik ezetu doguzan ospakizun tradizionalak aspaldi bihurtu zirala neurri bako konsumorako egunak. Zer esanik ez, kanpotik datozen ospakizun barriak: *Black Friday*, *Cyber Monday*, *Blue Monday* (bai, existitzen dira), *Halloween...* zerrenda handituz doa eta gero eta indartsuago datoz urte batetik bestera. Joan dan urri bigarrenaren 31n, adibidez, neska-mutiko talde bat baino gehiago ikusi ahal izan genduzan Igorren etxerik etxe gozokiak eskatzen (!). Martxa honetan laster geu be amerikarren *Eskeimate eguna* ospatzen hasiko gara (pelikuletan sarritan ikusi izan dogun *Día de Acción de Gracias* famadu hori). Indioilar eder horreetako bat enkargetan joan beharko gara oingandik, badaezpada be, dendetan agortu orduko.

## ZERTZEAN



ARITZ ZUBIATE

**D**atua zorrotz, beti zenbakia lagun, estatistikaren zaku astuna ondo hornituta. Zehatz dakizkigu kontuak, guztia dugu eskuragai klik erraz batekin. Sareak ematen digu denaren erantzuna. Munduko edozein txokotako lore zein espaloien kolorea ezagutu dezakegu. Dena da gardena informazioaren aroan. Argiak irabazi dio gerra iluntasunari.

Ondo informatuta omen gaude. Begirale kritikoak gara, errealitatea sakon ezagutu eta zorrotz epaitzen dogunak. Askatasunaren aro luzeari bide eman dio egiaren argitasunak.

Argitsua da fokoa, distiratsua, baina ilunpetan uzten ditu ertzak. Eta zirku argitsu honetan bazterretan badaude ilunak eta osin beltzak. Hain zorrotz ezagutzen ez ditugunak, "berton" egon arren. Traba egiten diguten matematikak. Hor daude, baina desoroso

## Traba egiten diguten matematikak

zaizkigu, eta ez dugu euren existentzia hutsa onartu nahi, ebidentzia empiriko ororen kontra joatea den arren. Hor daude, baina ez ditugu ikusi nahi. Hor daude, baina ez baleude bezala bizi gara. Trenaren abiadura biziak bazterrean botata utzi dituenak daude hor, askotan ikusi nahi ez ditugun arren. Berton. Guri traba egin arren.

Matematikak, eta traba eragin eta deserosatasuna sortzen diguten errealitateak. Siritatik Europarainoko kilometroak. Lanean segurtasunean eta prebentzian nahikoa ez inbertitzeagatik hil diren langileen kopurua. Indarkeria sexista jasaten daben andrazko eta umeak. Alokairua ordaindu ezinik kalera bota ziztuztenak. Kalean bizi direnak...

Betaurreko berriak behar ditugu urte berrirako. Matematikek, trabarik egin ez diezaguten.

\* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heldzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak [begitu@topagunea.com](mailto:begitu@topagunea.com) helbidean.

## BEGI TXINDORRA

**H**au katua agertu zan gaube baten Zeanuriko jubilauean suetera sartuta, jatekoaren usainera. Arnesa eta koilarxu bat euki ebazan aldean eta nonok topau eban aldean eroian bolatua be. Atera eban bolatik papel bat, eta bertan katuaren izena, nongoa dan eta telefonoa ipinten ebazan. Norena dan jakinda eta kode postalean frantsesa dala ikusita, jubilaueen tabernako behargin batek katua koiu eta gaupasa egin eban katu horregaz, gero goizean goizetik nekazal turismoetan preguntetako ia katudun frantsesik dauan. Ikusita ezetz, Arantzazuko Isabel lagunari eroan jakon eta Isabelek berak lortu eban prefijoa asmau eta jaubeakaz kontaktuan ipinten. Atoan urten eban katuaren ugazabandreak katu bila autokarabana zahar baten, mapa bat hartuta. Bidean datorrela Isabeleri haginka eta beste hainbat aldrebeskeri egin eutsazan katuak eta jakinda 15 egun eroiazala galduta eta parasitoz beterik egoala, atera egin behar izan genduan katua Isabelen etxetik. Erpeka baten katu lupua eskapau eta kanpoan lotu zan Arantzazun barriro, afalordura arte... Gaubean buelta bat egin eta topau genduan atzera katu frantsesa eta gure estukureagaz, jaubea bidean, hurrengo goizean ailegetako zan, azkenean izeko bateri eroan behar izan geuntsan katua. Berak piloa eukita jakituna da, eta atoan maneju eban, desparasitau eta jaten emonda. Hurrengo egunean etori zan andrea, Burdeoseko herri txiki batekoa, ordurako jubilaueetakook lortuta euki genduzan familiako bitartez itzultzaileak eta eurai esker topau genduan andrea Durangon, galduta, kilometro piloa eginda Gipuzkoatik eta Gasteiztik. Zeanurira ekarri eta berak kontau euskun zelan galdu eban katua Bilbon, gasolinera baten karabanatik bajatuta, eta Burgosen paseotxu bat egitekotan zanean konturatu zala katua falta zala. Bilbora joan zan barriro eta eguna egin eban bila. Esperantzea galduta eta negar baten egin eban etxerako bidea eta 15 egun egin ebazan seme-alaben etxeetan, depresinoagaz antza. Berak esaten eban ezin zala bizi bere katua barik, eta bere esperantzea zala familia on batek hartu eta ondo egongo zala. Gaube egin Zeanurin eta hurrengo goizean agur handi bat eginda joan zan Frantziara katuagaz pozik, barriro etorriko zala esanda. Mila kilometro inguru egin ebazan autokarabanan biajean ibiltea gustau eta bakarrik eta auzoko barik bizi dan, zazpi seme alabaren ama dan andra gizajeak katuen bila etorteko, negar baten egoan. Katu horrek guk baino mundu gehiago dauka, danerik ikusi dau eta seguruenik gorriak pasau ditu hemen. Oindino ez dogu aituten Bilbotik katu hau zelan heldu zan gurera.

**Zeanuriko jubilaueetakook**



**Gorosti** Lorategien Diseinu eta Gauzatzea  
Ureztaketa instalazioa  
Mantenua eta Inausketa

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea  
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88  
[gorosti@gorostiscl.com](mailto:gorosti@gorostiscl.com)

**agoa** Ortodontzia  
Implanteak  
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa  
Odoizaga

Bidebarri 1. behea  
48140 Igome-Bikala  
T. 94 631 50 39  
Kalegora Zerbaita 101  
R.P.S. 21/06

**Abel Lapatza Iza**  
Taxi zerbitzua 24 ordu  
Dima

946 317 252  
608 287 249

**FISIK**  
FISIOTERAPIA ETA  
ERREHABILITAZIO ZENTROA  
Tel. 94 685 11 16  
LEHENDAKARI AGIRRE, 17 - IGORRE



ARRATIA

# Kirola eta kultura gaztaina sasoiari

Arratia, Ubide eta Zeberio, hamaika kirol eta kultura ekitaldi prestatu dabez urteko azken hamabostaldirako. Duda barik, umei ilusinoa biztuko jakie Olentzerok euren herria bisitetan dauka ikustean eta nagusiak be topauko dabe ondo pasetako modua.



Erredakzioa

## Arantzazu

### Abenduak 16, barikua

20:00etan, *Bille* poesia errezitaldia musikeagaz. Unai Ormaetxea eta Mikel Inunziaga "Inun"egaz Herriko Tabernan.

### Abenduak 24, zapatua

10:00etan, auzorik auzo base-ritar jantzita Olentzero kantetan. 18:00etan, plazan Olentzeroren etorkerea eta gaztaina erreak plazan. Eleizportaleko Gazte Asanbladak eta Arginatx Mendi Taldeak lagunduta.

### Abenduak 30, barikua

11:00etatik 13:00etara. Umeen eguna. Puzgarriak eta Zastaparrak Asti Taldea.

17:00etan Ibon del Olmo magoa Herriko Tabernan.

## Areatza

### Abenduak 16, barikua

Parketxean. Gabonetako apaingarrien tailerra. Naturako elementuak etxera eramateko eskulanak egin.

20:00etan, plazan. Arratia Kantuzen (arratiarrak kantetan alkartuteko topagunea) lehenengo kantu bira.

### Abenduak 17, zapatua

20:00etan, Carlos Salcines Quartet taldearen kontzertua. Marcos Salcines pianojoleagaz, Elsa Lizundia saxo jotzailea, Gorka Iraundegi bateriajolea eta Carla Sevilla kantariagaz.

### Abenduak 18, domekea

Mendi urtekerea Parketxeak antolatuta. Urte amaierako Gorbeiaiko kurutzera igoera.

10:00etatik 15:00etara, Errefujia-  
duen aldeko bigarren eskuko azoka solidarioa.

### Abenduak 19, astelehena

18:30ean, autobusa Bilboko Udal Musika Bandaren Euskalduna Jauregiko kontzertura. Kontzertua 20:00etan izango da. Izena abenduaren 15ean udaletxeko 3. solairuan emon behar da 18:30etik aurrera. AKKBk antolatuta.

### Abenduak 24, zapatua

Olentzero badator. 11:00etan, tailerrak plazan. 17:00etan, kalejireia. Ostean, Olentzero eta Mari Domingigaz argazkia egiteko aukerea egongo da Gortazar Jauregian. Baserritar jantzita joatera animetan dabe jentea. Guraso Elkarrekin antolatuta.

### Abenduak 27, martitzena

18:30ean, Cia Barreren eskutik *Es-kobien atzetik* antzezlanaren frontoian.

### Abenduak 29, eguna

Trapuzko Esku Pelota Txapelketa. Kanporaketak. 18:00etan, umeak; 18:30 inguruan nagusiak. Nagusien izen emotea 3 euro, umeak doban. Esku Pelota Elkarrekin eta AKKBk antolatuta.

### Abenduak 30, barikua

19:30ean, Areatzako Bandaren urte amaierako kontzertua eleizan.

Jai giroa emongo deusez kontzertuari bandakoak. Amaia Luzarraga sopranoak hartuko dau parte bertan.

### Abenduak 31, zapatua

08:00etan, eleiza aurrean. Ubide-tik Siskio eta Oketa mendietara igon. Laminok, saldea, langostinoak eta txanpaina ipiniko dauz.

## Artea

### Abenduak 24, zapatua

17:00etan, plazan Olentzero abestuteko geratu. Olentzero eta Mari Domingi opariak emoten, gaztainak plazan eta euskal jantzak Arteko umeakaz.

### Abenduak 30, barikua

18:00etan, orientazio proba. Plazan.

19:30ean, Gabon kantak. Plazan.

## Bedia

### Abenduak 16, barikua

Gabonetako jaiak. 17:00etan, azokea eta erakusketak; 18:00etan, yoga erakustaldia; 18:15ean, pilates erakustaldia; 18:30ean, zumba erakustaldia; 18:45ean ingeles eta euskera ikastaroetako Gabon kantak; 19:00etan, Bediako korru jantzen taldearen eta umeen euskal jantzen erakustaldia; 20:00etan, almendra almibarrez-tatuak.

### Abenduak 17, zapatua

12:00etan, "Izenaduba" Olentzeroren etxera. Bueltau 17:00ak inguruan. Komenidu da bazkaria eroatea.

### Abenduak 18, domekea

11:00etatik 14:00etara, Bediako parrokiak antolatuta, alkartasun dendea Alto Trujilloko Fe y Alegria eskolearen alde, katekesiko umeak

egindako eskulanak.

### Abenduak 19, astelehena

16:30etik 19:30era, Gabonetako postaletako marrazkiak batu daitezke liburutegian.

### Abenduak 21, eguztena

17:00etatik 19:30era, Gabonetako tailerrak. Apaingarriak sortu, herriko leku publikoetan ipinteko. Ludoteketan.

### Abenduak 22, eguna

19:00etan, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua eleizan.

### Abenduak 23, barikua

17:00etan, ludoteketan egindako apaingarriak herrian ipini, Gabon kantak abestuz; 19:00etan txokolatea plazan.

### Abenduak 24, zapatua

09:30ean, plazatik hasita auzorik auzo kantuan; 13:30ean, Olentzero umeakaz egongo da plazan. Gaztaina erreak.

### Abenduak 26, astelehena

10:30etik 13:30era, ludoteketa zabalik.

10:00etatik 14:00etara, hilaren 30era arte, liburutegiko ikasgela zabalik egongo da ikasteko.

### Abenduak 27, martitzena

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara, Gabonetako parkea frontoian.

### Abenduak 28, eguztena

10:30etik 13:30era, ludoteketa zabalik.

### Abenduak 29, eguna

10:30etik 13:30era, ludoteketa zabalik.

17:00etan, Gabonetako pelikulea ludoteketan.

### Abenduak 30, barikua

10:30etik 13:30era, ludoteketa zabalik.

### Urtaileak 2, astelehena

10:00etatik 14:00etara, hilaren 5era arte, liburutegiko ikasgela zabalik egongo da ikasteko.

### Urtaileak 3, martitzena

10:30etik 13:30era, ludoteketa zabalik.



## AREATZAKO UDALERA HURBILTZEKO BIDEAK



Udaleko ordutegia: 10:00-14:00



Aurrez aurreko bilerak alkate eta zinegotziekin: deitu 94 673 90 10 telefonora eta utzi zure telefonoa



komunikazioa.areatza@bizkaia.org eta www.areatza.net



Areatzako Udala



areatzako\_udala



Agenda Whatsapp bidez jasotzeko gura baduzu bidatu mezua "Agenda" hitzarekin 656 778 094 telefonora





## Dima

### Abenduak 16, barikua

Gazte Barri Dantza Taldeak 20 urte "11 dantza, 11 dantzari 20 urte". **17:00**etan, entsegu herrikoia frontoi txikian; **18:00**etan, ekitaldia Gaztetxean; **18:30**etan, jantzi guztien argazkia, izandakoak eta diranak; ostean merienda. Astegoiaren osoan zehar argazki erakusketea egongo da Gaztetxean.

### Abenduak 20, martitzena

**17:30**etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen entzunaldia eskolan.

### Abenduak 23, barikua

**17:00**etan, Txumuluxueta pelota taldeko Gabonetako Txapelketako I. finalerdiak.

### Abenduak 24, zapatua

**17:30**etan, eleizako arkupetan Olentzerori ondoetorria.

### Abenduak 30, barikua

**17:00**etan, Txumuluxueta pelota taldeko Gabonetako Txapelketako II. finalerdiak.



## Igorre

### Abenduak 16, barikua

**19:00**etan, The Upper Room gospel taldearen kontzertua Lasarte Aretoan.

### Abenduak 17, zapatua

**17:00**etan lehenengo saioa eta **19:00**etan bigarrena, Ene Kantak ekimenaren *Astonautak* musika ikuskizuna umeentzat. Lasarte Aretoan.

**22:00**etan, zinea *Un monstruo viene a verme* Lasarte Aretoan.

### Abenduak 18, domekea

**18:00**etan, Arantzarteren jantzi saioa. Lasarte Aretoan.



### Abenduak 20, martitzena

**18:00**etan, berbaldia "Errefuxiatuak, etorkizunera bidean" Ainhoa Larrakoetxea pediatra eta Gotzone Amuriza erizainagaz. Lasarte Aretoan.

### Abenduak 21, eguaztena

**19:00**etan, Arratiako Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. Lasarte Aretoan.

### Abenduak 23, barikua

**17:30**etan, pelota partiduak. Eskolako umeak lehenengo eta profesionalak gero. Ander Elezkano eta Oier Etxebarria, Imanol Arrese eta Iñaki Larrinagaren kontra.

**20:00**etan, Luis Iruarrizaga eta San Antongo abesbatzen Gabonetako kontzertua. Lasarte Aretoan.

### Abenduak 24, zapatua

**12:00**etan, Olentzero Mikeletik etorriko da.

### Abenduak 26, astelehena

**17:00**etan, Jostailuen azokea, Zaztaparrak, Maratu Gazteak eta Eizu Kiñuren eskutik Lasarte parkean.

**20:00**etan, AMEk antolatuta, Malas Companias Zirkotalearen *Txatarra* antzezlan. Ondoren 3 otzararen zozketa. Lasarte Aretoan.

### Abenduak 27, martitzena

**11:30**etik **13:30**era eta **16:30**etik **19:30**era, Gabonetako Umeen Parkea eta Zaztaparrak-en tailerak aterpean.

### Abenduak 29, eguena

**19:00**etan, Irudibertsotan: bertso eta marrazki ikuskizuna Lasarte Aretoan. Igor Menika marrazkilaria eta Uxue Alberdi, Onintza Enbe-

ta, Unai Iturriaga eta Julio Soto bertsotan.

### Abenduak 30, barikua

**20:00**etan, *El barbero de Sevilla* operearen grabazioaren proiektzioa Lasarte Aretoan.

### Abenduak 31, zapatua

VII. San Silbestre lasterketa. **11:00**etan, izen emotea; **11:30**etan, hasikerea.

### Urtaileak 3, martitzena

**11:30**etik **13:30**era eta **16:30**etik **19:30**era, Gabonetako Umeen Parkea eta Motxogaren tailerak aterpean.

## Lemoa

### Abenduak 17, zapatua

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, mendi urtekerea eta Turroi eguna.

**19:00**etan, parrilladea eta poteoa. Ondoren, The Riff Truckers eta Zazkel taldeen kontzertuak. Karabie Gaztetxean.

### Abenduak 18, domekea

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, goizeko urtekerea Arratiatik.

### Abenduak 20, martitzena

**19:30**etan, Arratiako Musika Eskolako ikasleen emonaldia Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

### Abenduak 22, eguena

**10:00**etan, ume eta gurasoentzako gaztaina eguna. Eskolan.

### Abenduak 23, barikua

**10:00**etan Harriketarrak Gazte Asanbladaren eskutik, *Karabie show* Haur Hezkuntzakoentzako antzerkia eta Lehen Hezkuntzakoentzako jolasak eskolan.

**10:30**etan, Olentzero eta Mari Domingi eskolatik udaletxera; **12:00**etan jolasak LHko umeentzat; **19:30**etan Nafarroako Kanta Taldeak girotutako poteo musikatua Txoane tabernatik hasita.

**19:00**etan *Evasores, morosos y millonarios vascos*. Panama Connections Ahoztar Zelaietaren liburuaren aurkezpena Gaztetxean.

### Abenduak 24, zapatua

**11:00**etan, auzorik auzo Olentzero eta Mari Domingigaz batera Gabon kantak abestu. Elizondon saldea eta txokolatea. Kulturgunean Olentzero eta Mari Domingigaz egoteko aukerea, gozokiak... Udaletxetik abiatuta.

**18:30**etan, Olentzero Karabie Gaztetxean.

### Abenduak 25, domekea

Ganzabal Mendi Taldeak mendi urtekerea. Anboto (1.331 m.).

### Abenduak 28, eguaztena

**11:00**etatik **14:00**etara eta **16:00**etatik **19:00**etara, Gabonetako Haur Parkea. Txikigunea, tailerak, puzgarriak, ohe elastikoak... Kiroldegian.

**19:00**etan, CEAR-en berbaldia "Refugiadas: La crisis de asilo en Europa". Karabie Gaztetxean.

### Abenduak 29, barikua

**19:00**etan, *Nabarro eta Laura* antzezlan, umorea eta jantzea. Karabie Gaztetxean.

### Abenduak 31, zapatua

**12:30**etan, Eneko Zamalloa memoria. Lemoako VI. Gabonetako Lasterketa. Ondoren herri poteoa. Futbol partidua Karabie Gaztetxean.

### Urtaileak 1, domekea

Arrastian, Korto Express Lehiaketaren hasikerea. Film laburrak egiteko kutxa batetik berba bi aterako dira eta horregaz film laburra egin behar da. Karabie Gaztetxean.

### Urtaileak 3, martitzena

**20:00**etan, Korto Express Lehiaketarako film laburren aurkezpena eta emonaldia.

## Ubide

### Abenduak 17, zapatua

Olentzerori gutuna eroan. **16:00**etan, herriko plazaik urten mendira.

**17:30**etan, txokolate beroa Arroikoko aparkalekuan eta Gabonetako herri azoka frontoian. Oparia Olentzerori eskatu. Azokan postua ipini gura izan ezker ipini hartu-emonetan "Ainhoatxo edo Ainaragaz". Elikagaien Bankuko postuan aportazioa egiteko eskatzen dabe antolatzaileak.

**18:00**etan antzerkia *Rol joko*. Gaztetxean. Goizkorri Emakume Elkarteak antolatuta.


## Zeanuri

### Abenduak 18, domekea

**18:00**etan, Pirritx, Porrotx eta Marimots. *Tipi-tapa Korrika*. Frontoian.

### Abenduak 19, astelehena

**19:00**etan, Juan Manuel Etxebarriaren *Gorbeia inguruko Etno-ipuina* eta *esaundak* liburuaren aurkezpena eta Gontzal Mendibilen kantak Kultur Etxean.



### Abenduak 24, zapatua

Goizean plaza apaindu. **17:30**etan Olentzeroren etorrera.

### Abenduak 26, astelehena

**19:00**etan, *Zura*, Jon Maiaren emonaldia Kultur Etxean.

### Abenduak 28, eguaztena

**19:00**etan, Maider Undaren berbaldia Kultur Etxean.

### Abenduak 29, eguena

**16:00**etan, Arte Ederretako Museora urtekerea. Izena udaletxean emon.

**19:30**etan, Gerra Zibilar buruzko berbaldia. Kultur Etxean.

### Abenduak 30, barikua

**19:30**etan, Benito Lertxundiaren kontzertua frontoian.

### Abenduak 31, domekea

Goizean, San Silbestre lasterketa.

## Zeberio

### Abenduak 16, barikua

**19:15**etan, umeentzako ekitaldia ermitan. Zirika Zirkus taldearen *Tren geltokia* ikuskizuna.

### Abenduak 17, zapatua

**18:00**etan, Balleta Zubialdeko frontoian.

### Abenduak 18, domekea

Austarri Mendi Taldeak antolatuta, **08:00**etan Burbonara urtekerea Zubialdeko plazaik.

**20:00**etan zinea *C.R.A.Z.Y.* eskola zaharrean.

### Abenduak 19, astelehena

**19:00**etan, Arratiako Musika Eskolaren musika entzunaldia eskola zaharrean.

### Abenduak 22, eguena

**18:00**etan, Taekwondo erakustaldia frontoian.

### Abenduak 23, barikua

**19:00**etan, jazz-pintxo saioa udaletxeko 2. solairuan.

### Abenduak 24, zapatua

**17:30**etan, Olentzeroren etorrera. Ermitabarrin hasi eta plazan amaituko da. Txokolate jana.

### Abenduak 26, astelehena

**12:00**etan, San Esteban ermitan mezea. Jarraian idi probak eta barauskarria. Etxazoko jaiak.

### Abenduak 29, eguena

**12:00**etan, Santo Tomas zaharra ermitan mezea eta barauskarria.

### Abenduak 30, barikua

**18:00**etan, Bola jaurtiketea Ermitabarriko bolalekuan; **20:30**etan, taloak Ermitabarrin.

### Abenduak 31, zapatua

**10:00**etan, mendi urtekerea Ton-torrandira. Zubialdeko plazaik.





## AREATZA

# Udal antolaketea hobetu gura dau Areatzak

Bai udal zerbitzuak, bai kanpora emoten

diran zerbitzuak, baita eraikinen kudeaketea

hobetuteko prozesua jarri dau abian Areatzako

Udalak. Zemendian hasi zan PKF-Attest enpresea

diagnostikoa egiten, diagnostiko horretatik

hobetuteko proposamen bat egin ahal izateko.

### Erredakzioa

Horretarako udaletzeko behar-ginakaz eta alderdi politikoetako ordezkariakaz alkarrizketak egiten dabiz. Galderak bost punturen gainekoak dira: antolakuntza, be-

harginen funtzioak, ekonomia, informatika eta eraikinak.

Honegaz batera, Areatzako Udalak artxibozaina kontratau dau 2017an artxiboa ordenau dagian. Asier Garcia Areatzako alkatearen arabera, udal barne antolakuntzan

artxiboaren kudeaketeak eragin handia dauka eta.

Urtea amaitu orduko egin beharreko beste lan asko ditu Udalak esku artean. Eskolako aldagelak amaitu, Gudarien plazaren ondoko kaleko karkabea konpondu eta saneamentua sartu, eta Errukiñe kaleko etxe bat konpondu, barbarako.

### 2017rako proiektuak

Aurrekontuak dirala eta, hiru batzar egin dabez Areatzan eta horreetatik, datorren urterako proiektu asko urten dirala dino alkateak. Lehenengo batzarra, zemendiaren 17an izan zan, Azpiegitura, Tokiko Garapena eta Hirigintzaren inguruan. Han ikusi zan herritarren ardura handienez, zala zer egin alde zaharrea dagozan etxe zaharkitu, eraikin eta esparruakaz. Peatonalizazioa be kezka horreen artean dago. Udal gobernuarentzat urtailetik aurrera peatonalizazio proiektua aurrera ateratea inportanteena izango

dala dino alkateak. Eta tokiko garapenari jagokonean, herriaren neurriko turismo plan bat egin gura dabe 2017an.

Kultura, Kirola eta Aisialdiaren gaineko batzarra zemendiaren 23an izan zan. Esparruen kudeaketa egokia, urteko programa bateratua eta lokalen gaineko araudia egiteko asmoa dago datorren urterako. Euskereari be bultzadea emon gura jako eta horregaitik Ueman sartzea onartu eben plenoan zemendian eta urtailetik Udalerri Euskaldunen Mankomunidadean egongo da Areatza.

Abenduaren 1ean batzar orokorra egin zan eta 13an, aurkeztu ziran aurrekontuak.

### Parte hartze modua aldatuten

Abenduaren 1eko batzarran, parte hartzea beste modu baten bultzatu behar zalako ideak indarra hartu eban. Parte hartzea bultzatu behar dala ez bakarrik aurrekontuetarako, barbarako proiektuen bidez

be bultzatu leitekela ondorioztatu eben. Herri eredia be definitu gura dabe Areatzan. "Energiaren aldetik, konsumoaren aldetik, herri euskalduna gura dogun... ze herri sortu gura dogun danon artean".

Prozesu honeek guztiak mar-txan ipinteko kanpo dinamizazioa beharrezkotzat jotzen dau Areatzako alkateak.



Areatza.

## ARRATIA

# Jostailu barriak bananduko dauz Gurutze Gorriak 50 ume ingururen artean

### Erredakzioa

Arratiako Gurutze Gorriak (AGG) jostailu barriak, ez belikoak eta ez sexistak jasoteko kanpaina abiatu dau. Arratian, egoera ekonomiko larrian dagozan 50 familia inguruk erabiliko dabe kanpainan batutako, Gabonetan euren umeai jostailu bari-riren bat oparituteko.

Jostailu barriak bakarrik jasoten dabez. "Ume guztiak daukie eskubidea plastikoa zabalteko, kutxa barriaren usaina somatzeko eta jostailu barriaren distiraz gozateko. Gurutze Gorriak berrerabilpenerako eta birziklatzeko beste kanpaina batzuk daukaz, baina kanpaina hau umeak jostailuak estrenau dagiazan da" dino Idoia Zuloaga Gurutze Go-

rriako Gizarte Teknikariak. Hori dala eta, umearen edaderako jostailu aproposak hartuko dabez gurasoak Gabon bezperetan, umeai etxeko intimidadean emoteko.

Jostailuak eroateko puntua Igorreko Gurutze Gorrian dago eta hilaren 21era arte eroan ahal dira. Athletic-ek eta Bilbao Basket-ek bat egiten dabe kanpaina honegaz, eta, jostailuak emoten dabenen artean Beñat Etxebarriaren kamisetua zozketatuko da besteak beste. Kanpainearen erabil-tzaile kopurua hasi egin dala aurten dinoe Arratiako Gurutze Gorriakoak.

Kanpaina hotz hasi zan. Abenduaren 2an Arratiako Toys R Us-en egon ziran eta jostailu gitxi batu ebela dino Zuloagak. Ha-ta

guzti be, jentearen erantzuna dala eta, baikor agertu da Itziar Esparta. "Igorren goiz baten, Toys R Us-en baino jostailu gehiago jaso doguz. Kuadrila bat etorri da zazpi jostailu ekarten eta neska batek beste hiru edo lau opari ekarri dauz" dino. Igaz Arratian batutakoagaz ez ziran eskualdeko premina guztiak bete izan eta Bizkaiko Gurutze Gorriak bialdu ebazan jostailuak Arratiako beharri-zanak beteteko.

### Errekonozimentua

Zemendiaren 26an, Donostiako Kursalean, Arratiako Gurutze Gorriak Euskal Herri mailan proiektuorik handienari saria eskuratu eban. Errekonozimentua Juan Mari Aizarna

AGGko presidenteak jaso eban.

Berrogei urte inguru dira AGGk ekitaldietan parte hartzean daua, anbulantziakaz lagunduten eta abar, baina 3 urte baino ez dira, gizartearen esku-hartzen beharretan hasi zirala. Dana dala, hiru urteotan bide luzea egin dabe. Etorriaren aldean, barbarako, 15 andra dagoz, eskolako lanak egiteko taldean 25 ume, eta 50 familia baino gehiagok erabilten dabe Elikagaien Bankua. Arratian Gurutze Gorriak hartu dau Elikagaien Bankua-aren ardura.

Zuloagaren esanetan, Gurutze Gorriagaz jentear bere herriko jenteari lagunduten deutso. Herri-rik hartu eta herrira bueltetan dau laguntzea AGGk. Bide sano laburra eginda.

## AREATZA

# Alkate eta zinegotzi izandakoak erabakitze eskubidearen aldeko adierazpena egingo dabe

### Erredakzioa

Abenduaren 23rako, Areatzako Gure Esku lan taldeak Erabakitze Eskubidearen aldeko ekitaldia antolatu dau. Diman egin eben moduan, Areatzan be demokrazia garaian alkate edo zinegotzi izandakoak adierazpen publikoa egitea gura dabe, eta horretarako 54 lagunegaz ipini dira hartu-emonetan. Orain arte jasotako erantzunagaz pozik dagozala dinoe lan taldekoak.

Ekitaldia 20:00etan hasiko da plazan, egitasmoaren aurkezpena eta bertsoakaz. Ondoren, Erabakitze Eskubidearen aldeko

adierazpena irakurriko dabe, euskeraz eta erderaz alkate eta zinegotzi ohien artean. Adierazpena panel handi baten egongo da eta alkate eta zinegotziak sinatu egingo dabe gero. Amaitzeko musikea eta brindisa egongo dira.

### Erabakitze Eskubidea hedatzen

Erabakitze Eskubidearen aldeko aldarrikapena gero eta hedatuago dago. Estaduan Kataluniak zabal-dutako bideagaz, eta European be Eskozia eta Britania Handia artean planteatutako konsultagaz erdiguneko protagonismoa har-

tu daua dinoe Areatzako Gure Esku Dago Batzordekoak. "Euskal Herrian be sasoi barri baten sartu gara, ETArein jarduera armatua eten egin dala 5 urte pasau diranean, tokian tokiko alkargune eta proiektu bateratuak garatzeko aukera zabalak dagoz. Danon artean defendidu behar dogu erabakitze eskubidea, eskubide demokratikoa dalako".

Gure Esku Dago ekimena 2014an ipini zan martxan Areatzan. Herri dinamika honetan parte hartzean dabena, Erabakitze Eskubidearen aldeko aniztasun eta desbardinaren arteko alkargu-nea izan gura dabe.

## ARRATIA

# Presoen aldeko ekitaldiak

### Erredakzioa

Sarek deituta, abenduaren 17an, dispersinoagaz amaituteko, preso lamiak etxeratze eta presoen giza eskubideak urratuten dirala salatuteko ekitaldia egingo da Diman 12:30etik aurrera. Ondoren, *Dimoztarrok salatzen dogu* izeneko bideoa grabauko da.

Aurretik pankartak margotu eta aurkezpena, mezua, jantza eta bertso-kantua egongo dira gero. Ondoren argazki kolektiboa eta saldea eta artzaimigak dastatzeko aukerea egongo da, eta amaituteko, bideoaren grabaketea.

Abenduaren 22an, 19:00etan, Lemoako Jubiladuen Etxeko goiko gelan Ane Ituñño abogaduak zigor

batuketearen inguruko berbaldia emongo dau. Han Iñaki Bilbao, Lemoako presoen egoerearen gaineko informazioa emongo da eta legeak zer dinoan eta ze eskubide urratzen diran aztertuko da.

Hilaren 30ean, 19:30ean, Igorreko Agirre Lehendakaria kalean urteko azken barikuko konzentrazioa egingo da.

### Kalera kalera deialdiak

Preso ohien ekimenez be, mobilizazioetara deitu dau Kalera Kalerak. Hilaren 24an Arteako plazan, konzentrazioa egin eta kandelak biztuko dabez. Hilaren 31n, 18:30ean, Lemoako plaza gorrian hasita manifestazioa eta ekitaldia egongo dira.

## IGORRE

**Misinolarien aldeko 10. tonbola solidarioa Arratian****Erredakzioa**

Mila sari baino gehiago bananduko ditu misinolarien aldeko tonbola solidarioak Igorren. Tonboleak hamar urte beteko ditu aurten. Eguenetik domekara, abenduaren 15, 16, 17 eta 18an, goizez 10:00etatik 13:30era eta arrastiz, 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik. Jasotako dirua misinolari igorreztar birengana bideratuko da. Maribel Egiluz, Congon dabilana, eta Juanita Agirre, Perun bizi dana dira dirua hartuko daberen misinolariak.

Euro baten txartela erosita mila sari horreetako bat eskuratu daiteke. Sariak eurak era bitara lortzean dira. Urte guztian zehar, hamaika

andra batzean dira martitzenero esku lanak egin eta tonbolan opari moduan ipinteko: erropak, amantak, neskatil jantziak eta beste gauza asko. Beste opari sorta handi bat berriz, Igorreko dendari, enpresa eta familiak emoten dabez doban; Beñat Etxebarria futbolistearen kamiseteta berak izenpetuta, edota markako kosmetiko garestiak tartean.

Aurten milatik gora sari dagoz. Sari bako boletoa ez da bota behar, otzara baten zozketan sartuko da-eta. Tonbolea itxi ondoren, azken egunean, abenduaren 18an, zozketatuko da otzarea.

Tonbolea aurten igazko leku berean dago, liburudenda izandakoan, zubi ondoan, Dimako autobus geraleku pare-parean.



## AREATZA

**Errefujiaduen aldeko azokea****Erredakzioa**

Abenduaren 18rako, Arratiako Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformeak bigarren eskuko azoka solidarioa antolatu dau. Azokea Areatzan izango da 10:00etatik 15:00etara eta bertan arratiarrak emondako gauza erabilgarriak egongo dira salgai prezio onean. Jasoten dan dirua, errefujiaduen alde behar egiten dauan erakunde baterako izango da.

Herriz herri batu ditue salgaiak zemendia eta abenduaren lehenengo hamabostaldian zehar. Zeanurin, abenduaren 16an batuko dabez azokarako gauzak 17:00etatik 20:00etara Kultur Etxeko atepaan. Arratiako plataformakoak, erropa asko daukiela eta gehiagorik ez dabela jasoko adierazo dabe.



## ARRATIA

**Mankomunidadeak 7 langabe kontratauko dauz, Gurutze Gorria eta Gaztaroa-Sartu erakundeakaz lankidetzan****Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM) lankidetzaz-hitzarmen bana sinatu dau Arratiako Gurutze Gorriagaz eta Gaztaroa-Sartu Kooperatiba Elkarteagaz, haranean lana sustatzeko 6 proiektuen barruan. Proiektuok Lanbideak bultzatu dauz eta 7 langabe kontratauko dira.

Lankidetzaz-akordioak 81.250 euroko ekarpen ekonomikoa daukie, eta zemendiaren 30ean berretsi ziran AUMen egoitzan, Igorren. Bertan izan ziran, Mankomunidadeko presidentea, Miguel Angel Etxebarria; Arratiako Gurutze Gorriko presidentea, Juan Mari Aizarna; eta Gaztaroa-Sartu Kooperatiba Elkartearen zuzendaria, Karnele Artaraz.

Arratiako Gurutze Gorriagaz sinatutako hitzarmenaren helburua lana sustatzea da, eta, horretarako, gazteriaz, gizareratzegaz, persona nagusiakaz eta artiboaren digitalizazioagaz lotutako 4 proiektu egingo dira; halanda

ze, 5 persona kontratauko dira: 3 teknikari eta 2 administrari.

Hitzarmen horretatik sortutako kontratuak 6 hilabete iraungo dabe, lanaldi osoan, eta 2016ko abenduaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra artekoak izango dira. Kontratu bakotxerako aurreikusitako gehieneko laguntzak 12.500 eurokoak dira; hau da, guztira, 62.500 euroko zenbatekoa, Arratiako Udalen Mankomunitatearen kargura. Arratiako Gurutze Gorriak, aldiz, aurreikusitako kostu osotik gora doan zenbatekoa osotzeko konpromisoa hartu dau, soldadak eta Gizarte Segurantzaz estaltzeaz jagoakonez.

Gaztaroa-Sartu Kooperatiba Elkarteagaz sinatutako hitzarmenak 2 proiektu hartzean dauz bere baitan, biak be enplegurako eta administrazioaren garrantzuzko Informazio Zentroagaz lotutakoak. Persona bi kontratauko dira: teknikari bat lanaldi osoan, eta administrari bat lanaldi erdian, 6 hilabetez, 2016ko abenduaren 1etik 2017ko maiatzaren 31ra.

## ARRATIA

**Arratiako Adikzinoen Prebentzinorako Plana eguneratuko dau Mankomunidadeak****Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunidadeak (AUM) Adikzinoen Prebentzinorako Plana barritzatu gura dau, prebentzioa gaur egungo errealidadearen arabera landu ahal izateko. Aurreko plana 2003koa zan.

Plana Ortzadar enpresek, AUMko Adikzinoen Prebentzinorako Teknikariagaz koordinatuta, eguneratuko dau eta daborduko diagnostikoa egiteari ekin deutso. Aprilean, Legebiltzarrak, Adikzinoen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko 1/2016 Legea onartu eban eta honen arabera, udalen ardura da plan lokal bat egitea. Arratian, udalen mankomunidadeak dauka Adikzinoen Prebentzinorako zerbitzua eta berak hartu dau legeak eskatzen dauan plan lokala egu-

neratuteko ardura. Plana eguneratuteak 14.800 euroko kostu ekonomikoa izango dau.

**Faseak**

Lehenengo fasea dokumentuen berrikusketa izan da: legeak, planak, ikerketak, eta abar eta horren ostean, diagnostikoari ekin deusie Arratiako gaurko errealidadea batzeako. Horretarako batzarrak egin dabez udaletxeetan politikari eta teknikariakaz jakiteko zelan ikusten daberen adikzinoa, konsumoa eta arriskuen inguruko errealidadea Arratian. Gero, EAEko substantzien konsumoaren egoeraren analisia kontuan hartuta alkarrizketak egingo deutseez Planekoak, irakasleak, gurasoak eta osasun personalekoak, besteak beste. Foroak be sortuko ditue, osasuna sustatzeko eragile desbardinaren ekarpenak batzeako.

Gainera, telefono bidezko inkesta aleatorioa egingo dabe, eta Lemoa eta Igorreko institutuetan eta Zulaibarren galdetegi bat pasauko deutsee ikasleak, konsumo eta arriskuen perzeptzioaren gaineko informazioa jasoteko.

Diagnostiko honetatik abiatuta ekintzen proposamena egingo dabe gero, eta azkenik, plana aurkeztu.



Juan Mari Aizarna eta Miguel Algel Etxebarria.

## ARRATIA

**Gurasoentzako tailerrak****Erredakzioa**


Arratiako Udalen Mankomunitateak (AUM), gurasoen proiektu personaletan, seme-alabak daukien lekuaren gainean hausnartzeko eta seme-alaben portaerak beharizantetara bihurtzeko, gurasoentzako tailerrak antolatu ditu.

Urtilaren 12an hasiko da Igorreko

Kultur Etxean lehenengo eta 12 eta 16 urte bitarteko gazteentzako gurasoentzako tailerra egongo da. Bigarren tailerra, martiaren 2an hasiko da eta 2 eta 5 urte bitarteko umeentzako gurasoentzako tailerra, Lemoako Kulturguneko gela lila izango da. Azkenik, 6 eta 12 urte bitarteko umeentzako gurasoentzako tailerra Areatzan izango da, gaztelaniaz, eta apirilaren 27an hasiko da. Tailerok bosna saio ditue eta 17:00etatik 19:00etarako ordu-tegiaz izango dira.

Izena emoteko, Mankomunidadea deitu edo prebentzioa.arratia@bizkaia.org helbidera idatzi behar da.





egizu lo lasai, geu arduratuko gara zeure loaz

- Beilatokia
- Errausketa-labea
- Gorpuak eroan zein ekarri estatu barruan eta atzerrian
- Lora-apaingarrien salmenta
- Gestino administratiboa
- Eskelak, doluminak eta esker onak online

■ **Bulegoa**  
Zabalea, 51 · 48960 Galdakao  
t. 944 570 395 (24 ordu)  
f. 944 575 043  
e. info@funerariagalarza.com

■ **Dimako tanatorioa**  
Ziarrusta industrialdea, 39

■ **Galdakaoko tanatorioa**  
Zabalea, 24





**BASKER**

# Basker: arratziarren musikeagaz kantetan eta jantzan

Argibel Euba ikerlari galdakaoztarrak zemendiaren 30ean aurkeztutako lan-altxorra da, *Basker* izenburuko liburu eta DVD formatuan argitaratua, orain hona dakarguna. 1963ko neguan Daniel Grenholm (1921-1995) eta Lennart Olson (1925-2010) erreportari suediarrek Euskal Herria bisitatu eban, eta euskal kultura eta folkloreak gaineko laburmetraje bi filmatu ebezan.

**Angel Larrea Beobide**

Dokumental etnografiko horreek suediar telebisino publikoan emon ziran urte bereko udan. Hona hemen film bien izenburuak: lehena, *Basker* da (Euskaldunak, suedieraz), 24 minutu eta 25 segundoko denporakoa; eta, bigarrena, *Bonde i Baskerland* da (Baserritarra euskaldunen herria), 17 minutu eta 15 segundoko. *Basker* euskal folkloreak arloetan (herri kirolak, musikea, jantza) oinarritutak da; *Bonde i Baskerland* filmak, barriz, baserritarren bizitzan, eta mundu horregaz erlazioautako lan eta arlo kulturalak erakusten deuskuz. Erreportariak erabili ebezan grabetako kamarea eta magnetofonoa kalidade handiko tresnak zirana lez, irudien eta soinu maila altua da.

Baina aitatutako lanak egin aurretik, Daniel Grenholm kazetaria Euskal Herrian egon zan bederati urte lehenago. Nondik? Badakigu 1954an Arratziatik ibili zana, eta Zeanuri bisitatu ebana urte horren hasieran. Bizkaitik, Gipuzkoatik eta beste lurralde batzuetatik, ez zan ibiliko? Behar bada, baina ez daukagu daturik. Ikerlanak Suediako

artxiboetara eroan gaitu, eta hauxe topau dogu: orduko suediar irrati bateko astekariak edo argitalpenak inoan moduan, Zeanuriko "Pablo artzaina" izeneko bategaz egon zan hartu-emonetan Grenholm. Honek etnografiako audio grabazioak egin ebazan eta argazkiak be atera eutsazan gizon hareri albokean jotzen. Biaje haretan egindako grabazioak baliatuz, albokearen gaineko irratisaioa egin eban esandako suediar komunikabide horretan. Itxura guztien arabera, Paulino Sagarna Letona (1874-1956) da "Pablo artzaina", Zeanuriko Arikibar auzokoa. Beraz, 80 urte ebazan Grenholm-ek bisitatu ebanean. Kazetariak haren semearen bitartez ezetu eban Paulino. Seme bitartekaria, seguru, Pablo Sagarna Etxeandia (1902-1968) ospetsua izan zan, "Astronomo" eta "Pastor de Gorbea" gatzinez ezaguna. 1954ko biajearen egindako kontaktuak eta esperientziak baliogariak izango ziran, hurrengo hamarkadako proiektua, 1963an Lennart Olsonegaz batera egin ebana aurrera atera ahal izateko.

Goazen, ba, *Bonde i Baskerland* filman agertuten diran arratziarren es-



Arteztarrak erromerian (arratzi jotea jantzan), 1963. urtean.

zenakaz: Leon Bilbao (1916-1990) arteztarraren eszenetan Euskal Herriko tresna musikal eta herriko bat aurkeztuten deuskue: alboke. Pasarte laburra baina sano esanguratsua da, "Leon Bilbaoren Jota" izenagaz ezetuten dogun pieza musikal dokumentetan daualako, eta alboke joteko modua hainbat plano zehatzetatik erakusten daualako. Leon Bilbaoren gainean ezetuten dogun argitaratutako lehen testigantza musikal da film hau.

Eta zer esan Benantzio Bernaola (1903-1978) eta Maurizia Aldeiturriagaren (1904-1988) irudien gainean? Ehundaka emonaldi eta erromeria emonak ebezan 1960ko hamarkadaren hasierarako. Osasun arazoak zirala-eta, Benantziok, "Ka-

rakol" gatzinez ezaguna, itxi behar izan eutsan publikoaren aurrean urteteari. Mauriziaz, baina, jotzen eta kantetan segidu eban beste urte askoan. *Bonde i Baskerland* lanean ikusten diran erromerian eszena laburrak, beste edozein erregistro baino hainbat urte lehenago eginak, Maurizia jotzen eta kantetan entzuteko eta ikusteko aukerea emoten dabe, eta sekulako balio dokumental eta historikoa emoten deutso horrek. Filmaren emonaldiaren amaiera, gainera, musikarien etxean bertan ospatuteak, balio handiagoa emoten deutse irudi horreei: protagonistak trikitilari bikote dira, Maurizia eta Benantzio andra-gizonak, Elexabeiti auzoko euren baserriko suetean. Benantzio soinu edo akordeoi txikiagaz

eta Mauriziaz, fandroagaz, koplak bi kantetan dauz gaztelaniaz. Orduan, ohikoa zan holan kantetea. Lehenengo koplea, berak asmatu ei eban eta senarraren omenez sortutako koplea zan. Bigarrena, herrikoia zan; tartean, jantziari animetako, sarritan erabiltzen eban "aire!" zantzoa. Kantua da, zalantza barik, dokumentaletako elementu zentrala.

Protagonismo gitxiago badau be, jantzeak presentzia esanguratsua dauka lan honetan: Elexabeitiko eszenan, modu informalean jantzan egindako jotak eta fandangoak ikusi eta konparazioak egiteko aukerea emoten dabe. Hantxe, jantzan dabizenak Artea herriko Karmen eta Dolores Ateaga, Kattalin Urigoitia eta Pantxike Aldekoa dira. Mauriziarren

VOGUE | CHANEL | ROXY GUESS POLICE | BOSS | CEBE | Silhouette | V&L | Ray-Ban | G. ARMANI

**Varilux kristalen promozio berria monofokal zein progresiboetan.**

**Zure 2. kristal parean opari**

**VARILUX**

**Erdu eta galdetu baldintzak.**

**Olaxte OPTIKA ZENTRUA**

Sabino Arana 3. 48140 IGORRE (Bizkaia)

94 657 70 03 olaxteoptika@hotmail.es

**arratiako instalazioak s.l.**

Berokuntza - Iturgintza - Gasa

Aireztatzeko sistemak  
Aire zurgatze zentralizatua  
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak

Igorreko Industrialdea  
Pab. D7  
Tel. Fax. 94 673 62 76  
Tel. 619 736 516  
48140 Igorre Bizkaia





# gurearen zaporea



*Eusko Labelek marka ziurtatuko kalitate goreneko eta zapore bikaineko produktuak eskaintzen dizkizu.*

Gure baserritarrek eta arrantzaleek gure lurraldeko onena ateratzen dute zuretzat. Euskadin ekoiztako, eraldatutako eta/edo landutako nekazaritzako elikagaien produktuak. Eusko Label erosita kalitate gorenekoa eskuratzeaz gain, gure ekonomia, gure lehen sektorea, gure paisaia eta gure kultura iraunarazten ere laguntzen duzu. Gureak ematen duen gozarena.

**hazi**  
LANA, BEHARRETA ETA BARRAZA ERROZINDAK  
BERRAZALDI BERRA, USTURUA Y ALMENDROA





bigarren koplea amaituten doan neurrian, Arratiako baseritar zahar biren (Meltxor Artetxe eta Luzia Olibares, Luziano Artetxeren gurasoak) lehen plano ederrak erakusten deus-keuz azken irudiak. Eurekaz ixten da bigarren eta azken dokumental hau.

Artean segiduko dogu, Elexabeitiko Luziano Artetxek abestuten dauan "Goazen mendirik mendi" kantuen bersino bat egaz:

"Goazen mendirik mendi,  
euzkotar guztiok!  
Goazen aldatza gora,  
mendigozaleok!  
Ai, ze osasun zale,  
bizitza indartzera!  
Tontorrera igonda  
ia bestiekin.  
Zantzo eta irintzi,  
ujuju indartsu egin!"

Segiduan, kazetari suediarrek euren aparatuak jaso eta filmen edizinoetara heldu ez ziran elementu konkretuak zehaztuko doguz; Arratiako kasuan, hau da topau ahal izan doguna:

-Filmazino saio luzea egin zan Elexabeitiko Bernaola Aldeiturriaga sendiaren baserian, hurrean. Bertan, familiarteko erromeria txikiaz eta Luziano Artetxeren kantuaz gainera, Frantzisko Bernaola (Maurizia eta Benantzioren semea) akordeoia jotzen, umeak kantetan, kortea eta baserriko behar batzuk be filmau ebezan atzeritar erreportariak.

-1963. urtean, Grenholm erreportariak, Donostiako El Diario Vasco egunkariari eskeinitako alkarizketan, filmen azken edizinoetan agertuten ez diran Galdakao eta Zeanuriko herrietara alboke filmetako egin gura eben bisitea aitauten dau.


Film dokumentalen fokua edo atenzinoa argi dago non zehaztu zan: landa eremuan, hau da, baseri inguruko arlo folklorikoetan. Beraz, mekanizau bako baserietako beharren dokumentazioak, guztiz zehatza izan ez arren, protagonismo handia hartzean dau *Bonde i Baskerland* izenburuko film. Arratiarren irudiak film honetan agertuten dira bakarrik.

Antzeko fenomeno emoten da egileak plano kulturalari zein musikaritari dokumentalean emoten deu-

tsien protagonismoa, argi dago: herri-gune txiki-tako mundu tradizional eta euskaldun petoari. Azken finean, kultura moderno industrial ez da erakusten, baina ostondu be ez da egiten. Egileak ez dabelako interesik arlo horretan. Behar bada, horixe da, hain zuzen be, emon gura deus-kuen mezua: elementu moderno, urtar eta industrialak izan arren Euskal Herrian, baserriko tradizio eta bizimoduak mantendituen dirala; baita be, filman agertuten diran ezaugarri kultural horreek guztiak Europaren eta XX. mendearen parte dirala.

Kazetari suediarrek ez dabe gura emon euskaldunen irudi osoa, sakona eta behin betikoa. Hori egitea ezinezkoa dala ondo jakinik, euskal kulturaren aurkezpen bat egiten dabe, zehatz-mehatz topau dabezan herri tradizioak: behar, joko, eta, batez be, jantza eta musika arloetan. Folklorearen "aktoreak" eta baseritarrek dira film bietako partaide nagusiak. Esate baterako, Maurizia eta Benantzioren agertuten diran filmazinoan, eurek biak bat egiten dabe rol edo perfiletan: alde batetik, baseritarren rola eta, bestetik, herri-musikarien perfla.

1960ko hamarkadaren hasieran suediar kulturearen ikuspegitik filmau ziran *Basker* eta *Bonde i Baskerland* dokumentalak. Ordurik hona, 50 urte baino gehiago pasau dira. Gizartea asko aldatu da. Orduan, Suediaren eta Euskal Herriaren arteko kontrastea handia zan. Eta hori kontutan hartu behar dogu film horreek egiteko errazien artean. Europako herrialde aurreratuen arteko bat izan zan Suedia Bigarren Mundu Gerrea amaitu eta osteko urteetan. Ideologia sozialdemokrata eukien gobernu suediarrek, hezkuntzaren, kulturaren eta herrialdearen modernizazioaren aldeko apustu garbia egin eben, eta neurri baten zuztar eta tradizio kultural askogaz egondako hartu-emonu galdu zan horren ondorioz. Munduko beste kultura asko ezetuteko interesa eukan bertako gizarte suediarrek. Interes handiko ikusleentzat kalidadezko materialak eta lanak eskeini egiten eutseezan. Horren aurrean, gerraosteko espainiar gizartearen egoera bestelakoa zan: atzeratuagoa (bizi maila askoz



bajuagoa) eta, gainera, erregimen diktatorial baten pean, 1936ko gerrak itxitako zauriak oindino zabalik ebezan herrialdea. Baina, aldi berean, mantendituen ebezan bizirik tradizio eta bizimodu herriarrak, Grenholm bezalako kazetari eta etnografo atzeritar batentzat, sano exotiko ziranak. 1960ko hamarkadan, Espainia frankista, ateak zabalduen hasi zan kanpoztarrai, industria turistikoaren eskutik. Eskeintza hori Europa iparraldeko bezeroari, suediarri besteak beste, emon jakien. Lehenengo esperientzia, 1962ko urtean, Andaluzian izan zan, hango kulturearen gainera dokumentala egin ebenean, Grenholm eta Olson jaunak konturatu ziran alde nabarmena egoala Iberiar Peninsulako hegoaldearen eta iparraldearen artean. Erreferentzia eta esperientzia honek hasi ziran biak euskal kultura aztertuten. Aurrera segidu aurretik, gogoratu lehen komentau doguna: Grenholmen bisitea Euskal Herria, 1954. urtean, orduko biaje haretan euskal kulturearen gainera lortutako ezagutza oso sakona izan ez arren. Halanda be, egileak aholkuak emon eutseezan gidari euskaldunak be

kontutan hartu behar dira, persona horreen jarkereak eragin nabarmena hartu ebalako filmetan proiektetan dan euskaldun eta euskal kultura folklorikoaren gainera irudian.

Diskurtso euskaltzalearen ereti batzuk jaso ebezan suediar biak, eta eurenak eginez, errez topau gein bezalako filmetan euskal etniaren singularitasuna eta euskal kultura diferentia eta antzina-antzinakoa dala esanez, inguruko herriakazko dituen desbardintasunak azpimarratuz. Sintomatikoa da erreferentzia historiko zehatzen falta; esan leiteke Euskal Herriaren Historia bera be filmetatik kanpo geldituten dala. Narrazioa entzun ezker, euskal kultura tradizional, egonkor eta atemporal baten irudi etnografikoa ikusten dogu. Izan be, gauza bera esan leiteke irudien gainera: baserriko munduan zentratuta dagoala. Edozein kasutan, Grenholm gidoiariaren lana handia da, dokumentaletan lortu eban ikuspuntu orekatua, berezia eta apartekoagaitik, eta Olson argazkilaria kasuan, dokumentazio grafikoaren edertasun formala be handia dalako.

Aurkeztutako film biak ez dira gaur

arte sekula ikusi Euskal Herrian. Horregaitik, ez eben bertan ezelango eraginik euki, baina suediarren aste batzuetako egonaldiak arrastoa itxi eban euskaldunen artean; euskal panorama kulturean zeharkako eragin esanguratsua. Azken batean, erreportariak interes bizia erakutsi eben bertako askok aintzakotzat hartu ez eta beste askok ezetu be egiten ez ebezan tradizioak filmetan etorri ziralako, eta euren lana betez, jakin barik, baina euskal mobimentu kulturearen aldeko partedun eta eragile aktibo bihurtu ziran.

Suediarrek ez dira izan atzeritik etorritako kronikari bakarrak. Euskal Herrian filmau eben zuzendari guztien artean, batez be deigarria da Orson Welles (1915-1985) zinemagile estatuatuak beteten dauan lekua, 1955ean film bi labur zuzendu ebalako zuri-baltzean: *The Land of the Basques* eta *Basque Pelota*. Baina Wells-en filmak eta suediarrenak sano desbardinak dira: Wells-enak dokumentu interesgarriak dira, jakina, Iparraldeko



**Elexabeitiko Luziano Artetxe kantetan (Artea, 1963. urtean).**

euskaldunen bizimoduaren gainera ikuspegia agertuten daualako, baina era subjektibotik ikusita eta tratuta; suediarrenak, barriz, objetiboagoak dira, jarrera zintzoagoa eta informatiboagoa erakusten dabelako Hegoaldeko euskaldunen gainera, geure izaeraz eta geure iraganaz.

Asko ikasiko dogu lan horreetatik, hasikera baten pentsau geinkena baino askoz gehiago; esate baterako, gure kultura ikusteko eta sentiduteko daben moduen inguruan, baina, gauza guztien gainera, geure buruaz ikasiko dogu XXI. mendearen hasierako ikus-entzuleok. Hor dagoalako, hain zuzen be, dokumentu bi horreen balio nagusietako bat.



## ASTEKO ESKEINTZAK

**GURE BEZEROEN ARTEAN  
OTZARA ITZEL HAU  
ZOKKETATUKO DOGU  
ABENDUAREN 23AN**

# FRUTERIA BEATRIZ

FRUTEA PREZIORIK ONENEAN!

EGUNERO  
ESKEINTZA  
BEREZIAK!

Lehendakari Agirre 31 Bis (Igorre) Telefonoa: 94 673 64 51



# begitu

arratia ubide zeberio

# ez da debalde



## ALKIZABAL

ZURE BEHARREI ERANTZUNA

Bolunburu Poligonoa, 19  
Amorebieta - Lemoa errep.  
48330 LEMOA (Bizkaia)

Tel. 946 31 44 06  
Fax. 946 31 20 26  
alkizabal@alkizabal.net

[www.alkizabal.net](http://www.alkizabal.net)



Basoak garbitzeko makineria

### ERAIKUNTZA ETA INDUSTRIARAKO SOLUZIOAK

ERAIKUNTZA, LOREZAINZA, EKITALDI ETA INDUSTRIARAKO MAKINERIA KONPONKETA ALOKAIKURUA ETA SALMENTA



## FUTBOLA

**Gizozekoak lider segiduten dabe eta andrazkoak atzeko postuetan dagoz**

Ainhoa Duñabeitia

Andrazkoak amaitu dabe 2016a. Urteko atzen norgehiagoka biak pasa dan astean, abenduak 8 eta 11n, jokatu ebezan. Abenduaren 8an, eguena, etxean euki eben partidua 0 eta 1 galdu eben Eibarren kontra. Partidua Usansolon jokatu behar izan eben, Urbieta zelaia, abuztuan bedar artifiziala aldatu eta gero, ez daualako ondo drenatzen eta lanean ibili dira hori konpontzeko.

Hilaren 11n, barriro euki eben partidua etxean, lanak amaitu eta gero barriro jokatu ahal izan eben Igorren. Aurrera Vitoria taldea izan zan aurkaria bigarren bueltako lehenengo partiduan, hiruna bardin-du eben.

Hurrengo partidua jokatzeko datorren urtera arte itxaron behar dabe, Gabonetan gelditu egingo da liga eta. Nstra. Sra. Be-len, azken sailkatua izango dabe aurkari. Arratia hamabigarren da 13 puntugaz.



Arratia Usansoloko zelaian Eibarren kontra jokatuako partiduan.

**Gizonezkoak lidertzan**

Gizonezkoak lidertzan jarraitzen dabe. Atzen norgehiagoka bietan bardinketea baino lortu ez daben arren, sailkapeneko lehen postua euren da. Hilaren 4an etxean jokatu eben partidua bana egin eben 6. postuan dagoan Trapagaran A taldearen aurka. Hurrengo astegienean barriz, abenduak 11, etxetik kanpo jokatu eben eta Iturrigorri A izan eben aurrez aurre. Atzen emoitzea Iturrigorri 1 Arratia 1. Hamahiru jardunaldi eta gero lehenengoa da sailkapenean 27 puntugaz. 14. jardunaldia etxean jokatu dau Arratiak Gurutzetaren aurka hilaren 18an.

Gizonezkoen bigarren taldeak jokatuako atzen bi partidua galdu egin ditu. Hilaren 4an Fruizen jokatu norgehiagokan 2 eta 1 galdu eben. Atzen partidua sailkapeneko lehen postuan dagoan Betolatz izan eben aurrez aurre, eta hemen be markagailuko atzen emoitzea Arratia 1 Betolatz 2 izan zan. Hurrengo neurketea, hilaren 17an, Lekeitio B-ren aurka izango dabe.

## BKT

**Bizkaia Kopa Traileko azken etapea Diman**

Erredakzioa

Abenduaren 18an, 09:00etan, jokatu da Diman Bizkaia Kopa Traileko (BKT) zortzigarren eta azken etapea. Bizkaia Kopa Trail mendi kirol liga da. Martxa, Trail, MTB eta Txakur krosak osotuten dabe BKT. Martxa ez da lehiakorra eta besteak puntuetan dabez. Diman, mendi martxa luzea, mendi martxa laburra, trail luzea, trail laburra, MTBa eta Txakur krosa egiteko aukerea dago.

Ibilbide laburrak, mendi martxa zein trailekoak 10 km.takoak dira; luzeak, 20 km.takoak. MTB 20 km. eta Txakur krosa 10. Izena abenduaren 15era arte emon daiteke BKTko webgunean edo egunean

bertan 08:00etatik aurrera.

BKTk Stop Sanfilippo Fundazi-noari lagunduten deutso.

**Azken etapea**

Aurtengo edizinoako lehenengo probak Arrietan jokatu ziran martiaren 20an. Ondoren, Lemoiz, Morga, Bilbo, Trapagaran, Lekeitio eta Zamudio jokatu dira, eta atzena Diman izango da.

Zazpi proba jokatu ostean, bizikletan Zuriñe Frutos eta Jose Romero dira liderrak; Trail laburrean Susana Vicente eta Anartz Mugika; Trail luzean, Agurtzane Argiarro eta Aitor Uriarte.

Txapelkunak garaiak eta dirua jasoko dabe sarizat.

## AZKOREA

**Atutxa Urrezko Aizkolarien Kopako finalista**

Erredakzioa

Aitzol Atutxak irabazi eban hilaren 8an, Zeanuriko frontoian jokatu-tako Urrezko Aizkolarien Kopako finalerdietako lehena, eta holan finala jokatzeko txartela lortu dau. Dimoztarra da egungo txapelketa, eta aurtengoa irabazteko be emon dau lehenengo pausoa Ugaitz Murgertzen kontra irabazi eta gero.

Azkolariak hamabina kana-erdiko ebagi behar izan zituen. Arratiarra jaun eta jabe izan zan hasikeratik kana-erdiko dozeena ebagi arte. Hasikeran parean ibili ziran, baina hirugarren enborretik aurrera, aldea handitzen joan zan. Lana burutu ahal izateko, 32 minutu eta 22 segundo behar izan zituan Atutxak, eta 35 minutu eta 15 segundo Ugaitz Murgertzak. Otxandion hilaren 11n jokatu-tako bigarren finalaurrekoa Iñaki Azurmendik irabazi eban, eta 18an Zarautzen izango dan finalaurrekoan osotuko da hilaren 31n Asteasuko frontoian arrastiko 17:00etan jokatu dan finaleko hirukotea.

**Bizkaiko Aizkolari Txapelketea**

Bizkaiko Txapelketako finala Bilbon jokatu da hilaren 21ean 13:00etan Bilboko Areatzan. Honeek dira parte hartuko dabenak: Julen Mendieta, Xabier Garcia "Utxu", Aritz Irazabal, Ernesto Ezpeleta "Bihurri" eta Aitzol Atutxa. Julen Larrea baja izango da min hartuta dago-eta.

2017an be lorpen barriak batera ospatuko doguz



**BATZ**
*Zorionak eta  
urte barri on*

Torrea 2

San Juan 13

Industrialdea

48140, IGORRE

www.batz.eus



PELOTEA

# Dimako Gabonetako II. Txapelketako finalerdiak abenduaren 23 eta 30ean

Hilaren 23an eta 30ean, bietan arrastiko 17:00etan, jokatuko dira Diman Gabonetako II. Pelota Txapelketako finalerdiak.

**Erredakzioa**

Lehenengo finalerdian, gizonetzkoetan, Kadete, Gazte eta Nagusi mailako partidua jokatuko dira, eta andrazkoetan, eskupelota partidu bat. Bigarren finalerdian, barriz, neskek palan neurtuko dira; gizonak eskuz, Kadete, Gazte eta Nagusi mailatan. Lehenengo finalerdian, Kadete mailan, Dimako Markel Egañak eta Zornotzako Iñigo Atutxak, Zea-nuriko Beñat Etxeita eta Lemoako

Mikel Etxebarria izango ditue aurkari. Gazte mailan, Galdakaoko Peio Artola eta Atxondoko Dani Rodriguez izango dira buruz buru. Nagusien mailan, barriz, Dimako Joseba Etxebarriak eta Algortako Inhar Ugartek, Ekhi Ziarrusta dimoztarrak eta Oier Etxebarria lemoaztarrak izango dabez aurrez aurre. Andrazkoetan, eskupelota partidua jokatuko dabe Zubiaur eta Goiri pelotariak, Sagarna eta Bariazzarren kontra.

Bigarren finalerdia, hilaren 30ean jokatuko da. Kadete mailan, Dimako Ekain Garaizar eta Lemoako Ibon Kanterok, Zaratamoko Enok Iglesias eta Sospelako Alain Argaluzak izango ditue aurkari. Gazte mailan, Lur Ziarrusta dimoztarrak, Abadinoko Jon Aranagaz neurtuko da. Nagusien mailan, arratiarrak izango dira danak; Iker Etxebarria dimoztarrak eta Beñat Mendia Zea-nurikoak, Dimako Kimetz Zapiko eta Ander Elezkanoren kontra jokatuko dabe. Andrazkoetan, Araitx Zapikok eta Leire Truebak pala partidua jokatuko dabe Maialen Landajo eta Itxaso Aginagaren kontra. Partiduotan taberna ipiniko dabe antolatzaileak.

**DIMEKO GABONETAKO II. TXAPELKETA**

**1. FINALERDIAK**

**EGUNA**  
ABENDUAK 23  
BARRIKUA

**ORDUA**  
17:00

**KADETEAK**

Markel Egaña (Dima) Iñigo Autxa (Zornotza)	//	Beñat Etxeita (Zeani) Mikel Etxebarria (Lemoa)
---	----	---

**GAZTEAK**

Peio Artola (Galdakao)	//	Dani Rodriguez (Atxondo)
------------------------	----	--------------------------

**NESKEN ESKUZO PARTIDUA**

Zubiaur Goiri	//	Sagarna Bariazzarra
------------------	----	------------------------

**NAGUSIAK**

Joseba Etxebarria (Dima) Inhar Ugarte (Algorta)	//	Ekhi Ziarrusta (Dima) Oier Etxebarria (Lemoa)
--	----	--

ESTU  
KONKURTAN PROBATZEA BERTAN  
BARRIK BAIT GONDOZ DA ZERAMAK ETA  
PARTIDUAK

ZIKLO-KROSA

# Stan Godrie-k eta Aida Nuñok irabazi eben Igorreko Ziklo-krosa



Stan Godrie holandarra helmugan.

**Erredakzioa**

Euskadi-Basque Country Challenge-ko txapelak, barriz, Ismael Estebanek eta Aida Nuñok eraban eban. Nuñok, Challengea osotuten dabezan hiru probak irabazi zituan. Elite mailako andrazkoetan proban, inork ezin izan eban Nuñoren lidergoa arriskuan ipini eta Igorren bere nagusitasuna erakutsi eban. Lucia Gonzalez izan zan bigarrena eta hamazazpi urteko Sara Casasola hirugarrena. Gizonetzkoetan, barriz, azkenengo momentura arte ez zan jakin nork jantziko eban txapela, eta Stan Godrie eta Ismael Estebanen

arteko sprint-ak ebatzi eban holandarren alde. Nadir Colledanik osotu eban podiuma. Igorreko proban bigarren eginda be, Estebanek irabazi eban Challenge-a. Julen Zubero lemoaztarrak 18. egin eban Igorren. Igorreko andren Elite eta 23 urtetik azpikoen lasterketa estatu mailan telebistatik emoten dan lehenengoa izan da. ETB4 kateak proba hori eta gizonetzkoena zuzenean emon eban.

**Masterren protesta**

Fisik Banco Mediolanum-ek, Euskal Herriko beste master taldeak lez, ez eban parte hartu ez Igorreko proban ez Challenge osoan,



Aida Nuño asturiarra.

protesta moduan. Izan be, Challengearen araudiaren arabera, probetan parte hartzea doban da kategoria guztietan, masterretan izan ezik. Honeek 10 euro pagau behar izan dabe proba bakoitzean eta hau diskriminaziotzat jo dabe ziklo-kroslari beterranoak.

M30ean, Oscar Pina izan zan irabazlea, M40an Castor Gonzalez; M50ean Francisco Jose Pla eta M60ean Jose Antonio Pina. Kadete Mailan, Gonzalo Inguanzo eta Nahia Eraña izan ziran irabazleak. Junior mailan, Xabier Murias.



Andrazkoak lasterketa urtekeran.

ZIKLO-KROSA

# Manu Quintanilla igorretarra, Bizkaiko txapeldun laugarrenez M40an

**Erredakzioa**

Manu Quintanilla igorretarrak, laugarren Bizkaiko Txapela lortu eban zemendian Lezaman, M40 kategorian.

Denporaldiaren hasikeratik sasoi onean dagoala erakutsi dau igorretarrak; izan be, lehenengo lasterketatik podiumera igo da. Urduñan izan zan lehenengoa eta han hirugarren egin eban. Hurrengo lasterketa biak, Medina de Pomar eta Villarcayon, irabazi egin eban. Beasainen hirugarren egin eban.

Lezamakoa irabazi eban gero, Bizkaiko txapela lortuz. Ondoren bosgarren postu bi etorri ziran, Torrelavegan abenduaren 8an eta Elorrioren 10ean. Euskadi-Basque Country Challengean ez dau parte hartu araudia diskriminaziotzat jotzen daualako.

Lau bat lasterketa falta diranean denporaldia amaituteko, pozik agertu da Quintanilla egindako beharraz. "Hiru edo lau ziklo-kroslari egoten gara beti lehian irabazteko. Edonork irabazi ahal izaten dau eta hor ibiltzen gara lehenengo postuetan" dino Bizkaiko txapeldunak.



LITERATUREA

Literaturearen gaineko hausnarketa feminista, Diman

Erredakzioa

Arratiako Andren Jabekuntza Eskolearen barruan, Irakurbide feministak literaturan ikastaroa emongo dau Iratxe Retolazak, abenduaren 16an, 17:00etatik 20:00etara eta 17an, 10:00etatik 13:00etara Dimako Batzar Gelan.

Ikastaroak literaturara hurreratzeko irakurbide feministez hausnarketea egitea izango dau helburu. Bide horretan, hezkuntza literarioak, testuetara hurreratze-



Iratxe Retolaza.

ko garatu izan dauzan eredu matxistak gainditzeko saioak egingo dira.

Ikastaroaren metodologia praktikoa eta parte hartzailea izango da; beti be ikuspegi feminista abiapuntutzat hartuz.

MUSIKEA

Kantuzaleen lehenengo bira

Erredakzioa

Arratia Kantuz, Arratiako kantuzaleen ekimena martxan da. Lehenengo kantu bira Areatzan izango da abenduaren 16an. Kantuzaleak hilean behin, Arratiako herri baten batuko dira, alkarregaz kantetako.

Lehenengoa hilaren 16an izango da, barikuan. Kantuzaleak iluntzeko 20:00etan batuko dira Areatzako plazan. Han kantu li-

burua bananduko jakie bira hasi aurretik.

Arratia Kantuz egitasmoak, kantetako ohiturea berreskuratu, euskerea bultzatu eta ondo pasetako helburuagaz sortu zan. Bertan, Arantzazu, Areatza, Artea, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa eta Zeanuriko kantuzaleak hartzean dabe parte.

Arratia Kantuz-en ahalik eta herri gehienak parte hartzea gura dabe antolatzaileak.

Arratia Ubide eta Zeberioko euskerea eta kulturearen alde

Hamabostero Degitu zeure etxean

Egin zaitez zeu be Degitu-lagun

Etxean jasoko dozuz Zertu Kultur Elkarleak ateratako produktuak.

Hamabostean behin sari itzelen zozketan parte hartuko dozu.

Doag eta helbide honetara bidali:  
Zertu Kultur Elkarlea,  
Herriko Plaza 21, 48112 Artea

Izen-abizenak:  
Helbidea:  
Herria:  
Telefonoa:  
E-posta:  
Urteko kuotea aukeratu: 35€ 55€ 75€

**begitu**  
ubide eta zeberio

Osabiaso Ibari lastoakoa

**Gure** ikastetxeak

Euskalduna kalidadezkoa herrikoia

<b>JB Eguzkiza Meabe HI</b> Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	<b>Ikastola Arratia HI</b> Tel.: 94 673 90 65 Artea
<b>Ugarana HI</b> Tel.: 94 631 55 32 Dima	<b>Arratia BHI</b> Tel.: 94 673 62 37 Igorre
<b>Zubialde HI</b> Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	<b>Areatzako Herri Eskola</b> Tel.: 94 673 90 93 Areatza
<b>Zeanuri HI</b> Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	<b>I. Zubizarreta HLHI</b> Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza  
Lehen Hezwuntza  
Derrigorrezko Bigarren Hezwuntza  
Datxilergoan  
Hezwuntza Zimloan

2 urteku 18ra

OPEL

**Ibalgane, S. Coop. Ltda.**

Estazioa, 15  
48330 LEMOA (Biskai)  
Tfn. 631 33 30 - 631 31 31  
Fax 631 36 15

**NAIARA** Hartz Klinika

Lehendakari Agirre, 19  
48140 Igorre  
94 631 52 26

**RUGBY TABERNA**

•Egin zaitez bazkide!  
•09:30etik zabalik  
•Asteburretan pintxo bereziak

**ARRATIKO ZEKORRAK**

arratiko.zekorrak@gmail.com  
http://santxisme.blogspot.com/

**PTRAINER**

www.ptrainer.eus 615 724 388  
www.ptrainer.es 652 739 267

PROGRAMA PERTSONALIZATUAK ELIKADURA ZERBITZUA ONLINE

SAIO PRESENTZIALAK TALDE TXIKIETAN  
INFORMA ZAITEZ ORAIN

- Errendimendua hobetu nahi duzu?
- Pisua galdu nahi duzula.
- Martoa, maratona, trail, ultra trail, edo herriko probaren bat prestatu nahi duzu?
- Kirol errendimendua hobetu nahi duzula.
- Zentzuz entrenatzen ikasi nahi duzu?
- Osasuntsu eta danetank jaten ikasi nahi duzula.

Lehendakari Agirre 5, Igorre



## AME

### Igorreko merkatariak Gabonetako hiru otzara zozketatuko ditue

#### Erredakzioa

AME, Igorreko merkatarien alkar-tea, hasi da Gabonak ospatuten horretarako antolatutako hainbat ekintzagaz. Holan, herriko erdikaldean argiak eta arbola ipini dabez, Malas Compañías antzerki taldea Lasarte Aretoan izango da abenduaren 26an eta hiru otzara zozketatuko ditue.

Gabonetako otzaren zozketan parte hartzeako aukerea izango dabe AMEko komertzioetan abenduan zehar erosten dabenak. Otzarok Ezkur zapata-dendan dagoz ikusgai. Zozketea abenduaren 26an izango da Lasarte Aretoan, antzerkiaren ostean.

#### Argiak eta ikuskizuna

Gabon sasoiari hasikerea emoteko, merkatariak herriko erdikaldeko

Gabonetako argiak eta AMEk ipinitako arbola biztu ebezan abenduaren 9an. Musikea, jan-edana eta giro ederra ez ziran faltau.

Hilaren 26an barriz, arrastiko 20:15ean, Malas Compañías Zirkotaleak *Txatarra* ikuskizuna taularatu dau Igorreko Lasarte Aretoan. "Hainbat tramankuluz eregitako unibersora eroango gaitu, igon, jeitsi, bira eta salto eginaz eta asperaldirik astunena be dibersino bihurtuz, adin guztietara zuzenduriko antzerki honetan" azaldu deutso BEGURI Gorka Jauregi AMEko presidenteak. Sarrerea debalde izango da, Igorreko edozein komertzio-tako erosketa tiketa erakutsita.

Jauregiaren arabera, Gabonetako ekintza honeen bidez, herriko komertzioetan ipini daben konfiantza eskertu gura deutse AMEK igorretzarrak.



Hainbat jente batu zan hilaren 9an Igorren.

## TAILERRA

### Nerabeen parte hartzea sustatzeko formazino tailerra antolatu dabe Diman

#### Erredakzioa

## NERABEEN PARTE HARTZEA SUSTATZEN



Begirale eta Gazte teknikarientzako formazino saioa antolatu dabe Dimako Udalak, Arratiako Udalen Mankomunidadeak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gaztedi Bizkaiak.

Ikastaroa urtailaren 14an izango da, goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara Dimako Elexalde Gelan. Izena, norberaren herriko udaletxean emon behar da abenduaren 16a baino lehen.

## ARTE PLASTIKOAK



Marisol Calzada igorretzarraren lan bat.

### Ines Medinaren mintegirako izena emon daiteke Igorreko Kultur Etxean

#### Erredakzioa

Arte plastikoaren bidezko norberaren prozesu sortzailearen garapenerako mintegian lekua dago talde baten eta interesa daukienak izena emon leikie Igorreko Kultur Etxean. Eskolak urtailaren 7, 14, 21 eta 28an eta zezelaren 4 eta 11n izango dira.

Mintegiaren helburua norberaren sormen prozesuaren kontzientzia hartzea da eta ezagupen plastiko teoriko eta teknikoak ikastea. Bertan parte hartzeako, aldezturik mintegi honetan izandakoak zein inoz izan ez diranak emon leikie izena. Izan be,

norberari egokitutako metodologia erabilten dau Medinak.

Ikasturte amaieran mintegiko partaideak erakusketara egingo dabe Igorreko Kultur Etxean.

#### Ines Medina

Ines Medina 2009an hasi zan Igorren mintegiak emoten. Euskal Herrian eta New York-en batez be ibilbide artistiko handidun margolaria da Medina, eta Arratiako artista plastiko askok izan dabe bera irakasle.

Oraingo ikasturtean talde bi dagoz Igorren arte plastikoaren bidez prozesu sortzaileak garatuten eta lekua dago parte hartzeako.

## DUNBA

### Harrotxuren legenda

Unai Ojanguren. Lemoako JB  
Eguzkiza Meabe ikastetxeko DBH  
4A mailako ikaslea

Bazen behin, Euskararen planeta batean, Harrotxu izeneko mutiko alai eta dibertigarri bat.

Planeta horretako biztanleek botere ezkutu bat zuten, herritar bakoitzak Euskal Herriko herri batekin lotuta zegoen, eta euskararen erabileraren maila neurtzen zuten haien. Harrotxu Lemoa izeneko herri txiki batekin zegoen lotuta.

Urteak pasa ahala planetako pertsona asko hil egin ziren herritar bakoitzak lotuta zuten Euskal Herriko herriaren euskararen

erabileraren maila gutxitu egin zelako.

Lemoako euskararen erabileraren maila ere pixkanaka-pixkanaka gutxitzen joan zen, eta Harrotxu gaixo gaixorik jarri zen. Harrotxu triste zegoen eta ez hiltzeko Lemoara joatea erabaki zuen, haren magiaren bidez lemoaztarren euskararen erabileraren maila indartzeko.

Harrotxu plater hegalarian sartu eta Lemoara abiatu zen.

Harrotxu Lemoara iritsi zen. Bere plater hegalaria Lemoatx menditontorrean lurreratu zuen eta etxe txikitxo bat eraiki zuen bere misioa bukatu arte.

Hurrengo egunean herrira jaitsi zen eta entzuten zuen hizkuntza bakarra erdara izan zen, gaztelania hain zuzen ere. Oso ahul sentitu zen eta bere magia erabiltzeko momentua heldu zela erabaki zuen.

Harrotxuren magia oso indartsua da, eta Harrotxuk bere ma-



Harrotxu.

gia indartsua erabiliz Lemoara euskara itzuli ahalko zela suposatu zuen. Magia herri hartako umeek euskaraz hitz egitea zen. Lemoako haurrek euskaraz hitz egingo balute, Lemoara euskara itzuliko litzateke eta Harrotxuk osasuna berreskuratuko luke.

Harrotxu Lemoako eskolara abiatu zen galopan eta bertako ume guztiak estralurtar zoragarri hura ikustean beragaz maitemindu ziren.

Ume guztiak miresten zuten Harrotxu eta honek umeek euskaraz hitz egitea lortu zuen. Ondorioz herritar guztiak euskaraz

hitz egiten hasi ziren eta Harrotxu indartsu jarri zen.

Misioa burutu zuen eta haren planetara itzultzeko ordua heldu zen, baina umeek ez zuten gura. Hala ere, Harrotxuk pena handiz alde egin zuen bere familiarekin egoteko.

Umeek ez zuten negar baino egiten; ia konturatu barik Harrotxuren magia desagertu egin zen eta berriz ere gaztelaniaz berba egiten hasi ziren euren artean. Harrotxu berriro ahuldu zen eta honetaz ohartu zen: edo Lemoara betirako joan bizitzera, edo bestela gaixotasunaren ondorioz hilko zela. Lemoara bizitzera etorriko balitz, bere familia noizean behin baino ez ikustea izango litzateke ondorio larriena, baina kontrakoa izango balitz bera hil egingo litzateke.

Azkenik Harrotxuk erabaki bat hartu zuen...

Harrotxuk Lemoan eta Bedian, bietan txandaka bizitzea erabaki



zuen eta umeak Harrotxu berriro ere ikustean guztiz alaitu ziren; Harrotxuren magia berriz indartu zen. Euskara, hizkuntza bizia eta aberatsa, herri biotako kale eta plaza guztietan jabetu zen.

Gaur egun ere Harrotxu oso pozik bizi da Lemoan eta Bedian euskara babesle lana egiten du bertan. Zuon laguntzari esker Lemoan eta Bedian berriz itzuli da euskara herritarren berbetara.

Gogoratu! Euskaraz berba egin behar dugu Harrotxu indartsu sentitu ahal izateko.

Gora Harrotxu eta gora euskara!



## AGENDEA

### ABENDUAK 15 ARANTZAZU

Negulekuak hilaren 27 eta 28an Mandoia Aterpetxean. 12-16 urte bitarteko gazteentzat, 6. mailakoak be parte hartu ahal dabe. Izena emoteko atzen eguna hilaren 19a. Udaletxean.

#### ARRATIA

Urtailearen 3an Donostian egingo diran Negulekuetan izena emoteko epea abenduaren 15era arte. 12tik 16 urtera arteko gazteentzat. Igorreko Kultur Etxean edo Bedia, Dima eta Lemoako Gaztelekuetan emon behar da izena.

#### BEDIA

Gabon Txartelen Lehiaketan parte hartu dabenen erakusketea liburutegian. Hilaren 16ra arte, 16:30etik 19:30era.

#### IGORRE

Abenduaren 29an Gabonetako Umeen Parkera joateko izena emoteko azken eguna. maratu.igorre@gmail.com helbide elektronikora idatzita edo 688 898 765 telefonora deituta.

Hilaren 18ra arte, Ikus-arten erakusketa ibiltaria. Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan.

18:00etan, Bizi (Igorre adinakoakaz adeitsuago izateko programea) proiektuaren 5. saioa Kultur Etxean.

19:30ean, Alex Txikon, Ali Sadpara eta Simone Mororen berbaldia "Neguko lehen igoera. Nanga Parbat 8.126 m.". Lasarte Aretoan.

#### LEMOA

18:00etan, XI. Haurrentzako Marrazki Lehiaketaren sari banaketea. Ludotekan.

#### ZEANURI

18:00etan, Gizonen Gunea, "Gizonen parte hartzea bardintasunaren bidean". Kultur Etxean.

### ABENDUAK 16

#### ARRATIA

Mendi ibilaldia jubilatuta eta pensionistentzat, Galdakao-Ganguren. 08:45ean Zeanuritik Bilbora urtetan dan autobusean. Gurutze Gorriak antolatuta.

#### DIMA

17:00etatik 20:00etara, Arratiako Andren Jabekuntza Eskoleak antolatuta, Irakurbide



## Benito Lertxundi Zeanurik

Benito Lertxundik kontzertua eskeiniko dau abenduaren 30ean, 19:30ean, Zeanuriko frontoian, Gure Bazterrak musika promotoreak eta Zeanuriko Kultur Batzordeak antolatuta. Bertan, 40 urteko erreperitorio zabal eta ezaguneko kantuak entzun eta kantetako aukerea egongo da. Sarrerak salgai dagoz udaletxean 08:30etik 14:30era, hilaren 28ra arte eta hurrengo lekuetan hilaren 22ra arte: Areatzan, The Quiet Corner-en; Artean, Herriko Bentan; Igorren, Gau Loran; Dimako udaletxean; Ubideko Herriko Tabernan; Lemoako udaletxean eta Zeanurik, Txoko Sagaman, Jubiladuen tabernan, frontoiko tabernan eta Batzokian.

Benito Lertxundi (Orio, 1942) euskal kantaririk ezagunenetakoa da. 1965ean, beste batzuen artean, Mikel Laboa, Xabier Lete eta Lourdes Iriondogaz batera Ez Dok Amairu taldearen sortzaileetako bat izan zan. Proiektu kolektiboetan zein bakarkako lanean jarraituten dau, gitarra hartuta, bere kantetako estilo personala zabalitzen.

Hamazazpi disko ditu kalean. Azkena *Oroimenaren oraina* 2012an argitaratu zan.

Feministak Literaturan ikastaroa, Iratxe Retolazaren eskutik. Batzar gelan.

#### ZEANURI

17:00etatik 20:00etara, Areatzako Azoka solidariorako gauzak batuko ditue OEEkoak Kultur Etxeko aterpean.

### ABENDUAK 17 AREATZA

Uparan, Areatzako Jubilatuta eta Pensinodunen Elkartearen bazkide eguna. 12:30ean, hildako bazkideen aldeko mezea; 14:00etan, bazkaria Areatzako Hotel Bainuetxean. 1932 urtean jaiotako bazkideak omenduko dabez.

#### BEDIA

11:00etan, Eleizalde Bediako Jubilatuta eta Pensionisten alkarteak antolatuta, Bilboko Itsas Museora bisiteta eta Gemikara. Autobus geltokian.

#### DIMA

10:00etatik 13:00etara, Arratiako Andren Jabekuntza Eskolak antolatuta, Irakurbide Feministak Literaturan ikastaroa, Iratxe Retolazaren eskutik. Batzar gelan.

Sarek antolatuta, dispersinoaren kontrako ekitaldia. 12:30ean, pankartak margotu; 13:15ean, ekitaldia: aurkezpena, mezua, jantza, bertsokantua. Ondoren argazki kolektiboa, salda eta artzai-migak eta *Dimoztarrok salatzen dogu* bideoaren grabaketea.

#### ZEANURI

Joko Alaik antolatuta babajana.

### ABENDUAK 18

#### DIMA

09:00etan, Bizkaia Kopa Trail: mendi martxea, trail, BTM eta txakur-kros.

### ABENDUAK 19

#### LEMOA

19:00etan, Kultur Proiektua herriratu Jubiladuen Etxeko goiko solairuan.

### ABENDUAK 22

#### LEMOA

19:00etan, zigor batuketaren inguruko berbaldia Ane Ituño abogaduagaz. Zer dino legeak? Zein da Inaki Bilbaoren egoera? Ze

eskubide urraketa emoten da. Sarek antolatuta Jubiladuen Etxeko goiko solairuan.

### ABENDUAK 24 ARANTZAZU

10:00etan, auzorik auzo baseritar jantzita Olentzero kantetan. 18:00etan, plazan Olentzeroren etorkerea eta gaztaina erreak.

#### AREATZA

Olentzero badator. 11:00etan, tailerrak plazan. 17:00etan, kalejireta. Ostean, Olentzero eta Mari Domingigaz argazkia egiteko aukerea egongo da Gortazar Jauregian. Baseritar jantzita joatera animetan dabe jentea. Guraso Elkarteak antolatuta.

#### ARTEA

17:00etan, plazan Olentzero abestuteko geratu. Olentzero eta Mari Domingi opariak emoten, gaztainak plazan eta euskal jantzak Arteko umeakaz.

#### BEDIA

09:30ean, plazatik hasita auzorik auzo kantuan; 13:30ean, Olentzero umeakaz egongo da plazan. Gaztaina erreak.

#### DIMA

17:30ean, eleizako arkupetan Olentzerori ondoetorria.

#### IGORRE

12:00etan, Olentzero Mikeletik etorriko da.

#### LEMOA

11:00etan, auzorik auzo Olentzero eta Mari Domingigaz batera Gabon kantak abestu. Elizondan salda eta txokolatea. Kulturgunean Olentzero eta Mari Domingigaz egoteko aukerea, gozokiak... Udaletxetik abiatuta. 18:30ean, Olentzero Karabie Gaztetxean.

#### ZEANURI

Goizean plazea apaindu. 17:30ean Olentzeroren etorrera.

#### ZEBERIO

17:30ean, Olentzeroren etorrera. Ermitabarrin hasi eta plazan amaituko da. Txokolatea.

### ABENDUAK 26

#### ZEBERIO

Ebazkoko jaiak. 12:00etan, San Esteban ermitan mezea. Jarraian idi probak eta baraskarria.

\* Agenda honetan sartu ez doguzan ekintzak 5. eta 6. orrialdeetan dagoz.

## IRAGARKI LABURRAK

### SALDU

#### KIROL MAKINEA SALGAI

Bizikleta estatikoa salgai. BH Fitness, Sprint Bike Three. Telefonoa: 649 979 115.

#### SALGAI

Hamar ardi eta aharitua (latxa errazakoak). Gura izan ezker, Undurraga auzunean, hektarea bateko larrea eta txabolea be itxiko jako erosleari, garbitzearen truke. Telefonoa: 653 745 838 (Gotzon).

### DANERIK

#### BAZKIDE BILA

Arratiako euskerazko aldizkariak bazkideak behar ditu. Interesauak 649 979 115 telefonora deitu.

#### LAN BILA

Etxeak, bulegoak, portalak... eta abar garbitzen dodaz. Kotxeduna. Interesatuak 635 207 386 telefonora deitu.

#### LAN BILA

Etxe garbiketak eta plantxea egiten dodaz. Kotxeduna. Interesatuak deitu 658 591 307 telefonora.

#### LAN BILA

Etxe barruko behargin moduan lan bila dabilen neska bat naz. Persona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiten dodaz. Deitu 622 197 909 telefonora.

#### IGORREN BERBALAGUN BILA

Astean ordubete euskeraz berba egiteko aukerea! Ikasten dagozanak lagundu gura badozuz edo euskeraz erreztasuna lortu, deitu 688 802 373 telefonora edo mezua bialdu euskera@igorre.net helbidera.

#### ALOKATZEN DA

Jardunean dagoan estetika zentroa alokatzen da Galdakaoko erdigunean. Hartu-emonetarako deitu 94 456 64 57 telefonora.


**Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. [begitu@topagunea.com-era](mailto:begitu@topagunea.com-era). Mezuak doban dira.**

## Begitu-lagunen txokoa

### Zenbaki honetako saridunak:

**1** Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Ene Kantak-en *Astonauta* ikuskizunerako.

Gontzal Eguskiza (Areatza)  
Nerea Barrenetxea (Lemoa)



**2** Zeanuriko Udalak emondako bina sarrera Benito Lertxundiren kontzerturako.

Rakel Iruarizaga (Arantzazu)  
Eduarne Landajo (Zeanuri)



**g** Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 14 urte eta ehundaka lagun.



## DENPORA-PASA

IMAN OLATU

	1	2	3	4	5	6	7
1							
2							
3							
4							
5							
6							
7							
8							
9							

### EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Alderdi. 2.- Hazia bota. Letra bat.  
3.- Sodioa. Testamentu Zaharrean,  
Noeren semea. 4.- Barazki bat.  
Greziako mitologian, Urano eta Gearen  
alaba. 5.- Sano. Persona izenordaina.  
6.- Letra bat. Puntzoi. 7.- Nori atzikia.  
Birritan, zeden. Letra bat. 8.- Behe.  
Ezetzta. 9.- Identifikau ahal izateko  
txartela.

### GOITIK BEHERA

1.- Nahibagea. Zeozer apurtzen  
danean. 2.- Zailtasun, oztopo.  
Abizena. 3.- Musika nota. Bete.  
Praseodimioaren sinboloa. 4.- ...tak,  
erlajuaren hotsa. Sukaldaritzan  
erabilten dan osagai bat. 5.- Txinpart.  
Birritan, bular. Bokala. 6.- Bostehun  
erromatar. Estu. Errepetiduta, kontuz.  
7.- Edabe garbi. Ohorea.

6	K	A	R	A	R	A	6
8	Z	A	Z	P	I	8	
7	R	I	P	I	7		
9	N	E	Z	E	9		
5	H	O	S	O	5		
4	A	Z	A	R	4		
3	N	A	K	A	3		
2	R	E	R	E	2		
1	P	A	R	I	1		
2	3	4	5	6	7		

Topau Lurreko zazpi erlieberen izenak.

A	E	N	U	G	I	D	N	E	M
A	R	R	I	U	N	E	I	S	A
G	E	O	M	A	R	A	T	U	L
I	Z	D	A	K	E	R	S	A	T
R	K	U	I	E	T	K	A	G	E
K	O	A	N	B	O	L	S	U	A
O	Z	E	A	R	L	U	L	T	I
B	O	T	U	G	A	E	A	X	O
A	H	A	R	A	N	A	B	I	R
S	O	K	A	T	E	A	A	A	L
K	R	I	T	X	I	O	R	M	E
U	N	D	I	A	G	O	R	U	A
H	U	N	L	E	J	I	A	R	U
A	M	E	N	D	I	X	K	A	R
D	Z	M	O	U	D	E	R	K	A

# AKI MI KO

Zorrozkiilo



umean moda  
**sew**  
0-16  
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE  
Tfnoa. 94 631 92 96 • sewmoda@hotmail.com

**AKESOLO, S.A.**  
GARRAIOAK, NEUMATIKOAK ETA ZERBITZUAK  
Garbe, 29 Telefonoa: 94 673 60 14 IGORRE-BIZKAIA

**AKEITEGIA**  
**GATV & LORA**  
**IGORRE**

Igorren  
**ARKITEKTOA**  
Aitzol Aurrekoetxea Pujana  
Lehendakari Agirre 23, behea  
aitzol@coavn.org - 675 705 111

Recreativos Gubi S.L.  
Angel Larrea  
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

**KIRRU**  
ILEAPAINDEGIA  
KOSANA eta ROBER  
SABINO ARANA 38  
IGORRE  
TLF. 94 631 92 00

**GARANTXE**  
Autoeskola  
TEORIA EUSKARAZ  
ZEIN ERDARAZ  
Lehendakari Agirre 31  
Tfnoa: 94 673 71 32  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
garantxe@telefonet.net

ASEGURUAK:  
AUTOAK  
ETXEBIZITZAK  
DENDAK  
ISTRIPUAK  
BIZITZA...  
**ZUZENBIDE**  
ABOKATUAK;  
ZUZ. ZIBILA  
KONTSUMO ZUZ.  
ADMINISTRATIO ZUZ.  
INGURUGIRO ZUZ.  
KONTABILITATEA  
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96  
Sabino Arana 3, behea - Igorre (Bizkaia)

**BIXER**  
TABERNA  
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

Jose Luis  
Corbacho  
**pintura lanak**  
Sabino Arana, 3. 3a  
Igorre 48140 Bizkaia  
94-673-70-87  
609-79-40-54

**Orre**  
FOTOKOPIAK - PAPERDENDA  
L. Agirre, 2.  
48140 Igorre (Bizkaia) Tfnoa: 94 673 64 25

Pinturas Aratia  
Javi Morato  
Tel. 628 443 992

**ARRATIA** AUTOESKOLA  
karneta euskaraz zein erdaraz  
Garbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)  
Telefona 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 80  
e-posta: urratia@euskatel.net



2017an pausoak sendo emon daiguzan



# baserrigintza

## OBRA BEREZIAK



Gabon zoriontsuak opa deuntsueguz!

[www.baserrigintza.com](http://www.baserrigintza.com)

☎ 94 673 68 29

Igor: 610 431 499



Igorreko Industrialdea, E-2  
48140 IGORRE (Bizkaia)  
sunaeraiketak@gmail.com